



**Gasteizen
Sexu-orientazioaren
eta genero
identitatearen aurka
izandako gertakariei
buruzko IV.txostena**



Ikusgune

Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako behatokia
Observatorio contra la LGTBI+fobia de Vitoria-Gasteiz



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

aurkibidea

00

Sarrera
p. 5

01

Helburuak
p. 7

02

Egungo testuingurua
p. 11

03

Metodologia
p. 21

04

Datuen analisia
p. 27

05

Eztabaida eta ondorioak
p. 43

06

COVID-19a
p. 51

07

Trans legearen
proposamenaren
balorazioa
p. 55

08

Gomendioak
p. 69

09

Bibliografia
p. 73

00

sarrera

Maiatzaren 17an, LGTBI+fobiaren aurkako Nazioarteko Egunean, IKUSGUNE- Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiak "Gasteizen Sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka Gasteizen izandako gertakariei buruzko IV. Txostena, (2020ko maiatzetik 2021eko apirilera)" aurkezten du. Txosten hau IKUSGUNEK, Udalarekin lankidetzan, Berdintasun Zerbitzuaren bidez argitaratutako bigarrena da, eta Lumagorri ZAT elkarteak 2017an datuak biltzen hasi zenetik laugarrena.

2020an erabat aldatu dira gure bizitzak. COVID-19aren pandemiak eta ezarritako osasun-neurriek eragin handia izan dute LGTBI+ jendearengan, baita gure udalerriko biztanleengan ere. Txosten honetan egiaztatu ahal izango denez, LGTBI+ jendeak behartuta ikusi du bere burua ikusi du etsaitasunezko giroko guneetan giltzapetuta egotera, 2020ko martxo, apiril eta maiatzeko konfinamenduaren ondorioz, eta ikusezintasuna baliatu du, baita armairura bueltatzea ere, bere burua defendatzeko. Hain zuzen ere, ikusezintasun hori oztupo handia da LGTBI+fobia detektatzeko orduan; izan ere, oro har, mota horretako giroan gertatzen diren erasoak ez dira salatzen, eta gertaera horiek ez dira eremu publiko eta aktibistara heltzen. Horregatik, azpimarratu behar dugu txosten hau pandemia (hau da, gaur egungo testuingurua) kontuan hartuta irakurri behar dela, hori egin ezean, pentsa genezakeelako egoera nabarmen hobetu dugula aurreko urteekin alderatuta, eta ez da horrela izan.

Egoera ezohikoa izan dela kontuan hartuta, beharrezkotzat jo dugu txosten honetan atal berezi bat sartzea, pandemiaren eta LGTBI+fobiaren arteko loturari eta horrek LGTBI+ jendearengan duen eraginari heltzeko.

Bestalde, pertsona transen aurkako gorroto-diskurtsoak protagonismoa hartzen

jarraitu du azken urte honetan, batez ere kolektibo horren eskubideak bermatuko dituen Estatuko lege-proiektuaren tramitazio-prozesuaren barruan. Gorroto-diskurtsoa gorroto-delituen atariko da, eta, horrenbestez, premiazkoa da horrelako mezuak geldiaraztea, eraso orokortuak eragingo dituen mehatxu erreala izan aurretik. Ildo horretan, txosten honek atal berezi bat ere badu, non transfobiaren egoera ez ezik, pertsona transen aurkako indarkeria desagerrarazteko politika publikoak antolatzeke beharra ere aztertzen diren.

Gainerako ataletan gai hauek aztertuko ditugu sakon: egungo errealitatea LGTBI+fobiari dagokionez, IKUSGUNE-Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiak detektatutako erasoak, datuen azterketa, emaitzen eztabaida, eta, beste behin ere, delituak eta gorroto-diskurtsoak desagerrarazteko bidean aurrera egiteko gomendioak. Azpimarratu behar dugu, bestalde, herritarrek gero eta gehiago dakitela IKUSGUNEren berri, eta, horren ondorioz, erasoak detektatzeko orduan aurreko txostenetan azaldutako alborapenak gutxitzen ari direla pixkanaka. Horri dagokionez, egiaztatuko dugu gero eta eraso gutxiago daudela gizon gayen aurka, eta horrek udalerriko LGTBI+fobiaren errealitatea egokiago detektatzeko aukera ematen digu.

Azkenik, IKUSGUNE sustatzera eta zabaltzera animatzen zaitugu, baita txosten hau ere, gure jendarteko arau zisheterosexualaren deserikuntzan aurrera egiteko. Oraindik bide luzea dago egiteko, baina, zure laguntzari eta lankidetzari esker, helburu hori gero eta hurbilago dago. Bien bitartean, edozein eraso jendaurrean salatzeke konpromiso irmoa har dezagun. Erasorik ez erantzunik gabe.



01

helburuak

IV. txosten honen helburua zera da: gure udalerrian LGTBI+fobiari dagokionez dagoen errealitatea egiaztatzea, LGTBI+ jendearen aurka gertatzen diren gorroto-delituak eta -diskurtsoak barne hartuta. 2020. urteko gertakaririk nabarmenena COVID-19aren pandemia izan da, baita trans pertsonen aurkako eraso publiko eta pribatuen gorakada handia ere. Ildo horretan, IKUSGUNEK azpimarratu nahi du gorroto-diskurtsoak gorroto-delituaren atarikoak direla, eta, beraz, beharrezkoa dela eraso mota horiek errotik moztea, delitu bihurtu aurretik. Gainera, LGTBI+fobia aztertzean, ikuspegi interseksionala eta feminista indartu behar ditugu, eta atzerapausoak saihestu; izan ere, atzerapauso horiek erasotako kolektiboen bazterketa areagotzea eta eskuin muturreko diskurtsoekin lerrokatzea besterik ez dute eragiten.

IKUSGUNEK aurreko urteetan helburu gisa ezarri zuen profesionalizazioa indartu egin da, baina oraindik ez osorik, 2020an ez baitzen izan proiektu honek behar duen lokal fisikorik. Egoera horrek atzerapena ekarri du Gasteizko udalerrian erreferente fisiko bat sortzeko orduan, eta, beraz, zailtasun bat erantsi dio IKUSGUNEri herritarrei hurbiltzeko orduan. Txosten honetan egiaztatu ahal izango den bezala, egoitza baten beharrak Behatokiaren funtzionamendu osorako gehien aldarrikatzen dugunetako bat izaten jarraituko du.

Aurten ere egiaztatu dugu, bestalde, Estatuan eta Europan egindako analisiekin bat etorritik, detektatu ditugun eraso gehienak ez direla salatzen. Arlo horretan, IKUSGUNEren helburua argia da: ahalik eta LGTBI+ pertsona gehienek (baita gaian interesa dutenak ere) jakin dezaten Behatokiaren berri, eta jabetu daitezela gertatzen diren gorabehera guztiak salatzearen eta erregistratzearen garrantziaz. Izan ere, LGTBI+ jendeak jarraitzen du ikusezintasuna baliatzen, jendarte arauemaile eta etsai baten aurrean bere burua defendatzeko, eta horixe da, oraindik ere, oztopo nagusietako bat Gasteizen LGTBI+fobiaren egoeraren erretratu zehatza egin ahal izateko.

LGTBI+ jendeari dagokionez, txosten honen helburu nagusia da lesbianeiei, gayeiei, transexualei eta bisexualei zera helaraztea: erasoak ezin dira inola ere onartu, eta haien erregistro eta salaketa publikoa funtsezkoak dira eraso horiei aurre egiteko. Gure bigarren helburua esparru egokia bermatzea da, edozein pertsona gai izan dadin, bere sexu-orientazioa eta genero-identitatea direla eta nozitutako eraso bat identifikatzeko eta hari buruz informatzeko eta erasoak salatzeko mekanismoak ezagutzeko.

Bestalde, ikusgarritasuna funtsezko tresna da LGTBI+ jendeak jendartean askatasunez garatzeko, eta hori, berez, IKUSGUNEren helburua da. Izan ere, ezkututzeak, iluntasunak eta disimuluak beste garai bateko kontuak izan behar dute. Horregatik, beharrezkoa da jasotako erasoak proposamen eta esku-hartze politiko gisa argitaratzea.

2020ko martxoan, apirilean eta maiatzetan ezarri ziguten etxeko konfinamenduan, errealitate berri bat azalatu zen gure jendartean, ordura arte indarrean zeuden jarraibide sozialak aldatuz. Horrela, eremu publikoak gatazka-faktore izateari utzi zion, eta eremu pribatua nagusitu zen.

Kontua da eremu horretan LGTBI+fobia detektatzea askoz zailagoa dela espazio publikoan baino. Izan ere, eraso fisikoetatik haratago, familiaren barruan dagoen gorroto-diskurtsoa lausoa ohi da, eta, horren ondorioz, LGTBI+ jende askok ihes egiteko bideak bilatzen ditu etxetik kanpo. Bat-batean, ihesbide horiek guztiak itxi egin ziren, eta goiz eta gau elkarrekin bizi behar izan zuten, diskriminazio- eta etsaitasun-giroan. Errealitate berri horren aurrean, ikusezintasunaren estrategia aktibatuta zuten berriro, eta horrek eragotzi egiten du hura detektatzea eta salatzea.

“Perder la propia identidad. La adolescencia LGTBQA+ frente a la pandemia por COVID-19 y las medidas del estado de alarma en España”⁰¹ izenburuko ikerketan, egindako ikerketan elkarrizketatutako gazte nerabeen % 62,4k adierazi dute beren sexu-orientazioa eta/edo nortasuna ezkutatu behar izan dutela etxean. R. Lucas Platero Méndez eta Miguel Ángel López Sáez dira haren egilea.

IKUSGUNEK mota horretako kasuak bilatu eta antzemateko lana egin zuen, baliabide digitalen bidez eta arreta-telefonoaren zabalkundea areagotuz. Ez zen erraza izan.




02

egungo
testuingura

Gorrito-delituak eta gorrito-diskurtsoa

Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundeak (ESLE) honela definitzen du gorrito-delitua: *“Zigor-arloko edozein arau-hauste, pertsonen edo jabetzaren aurkako arau-hausteak barne, baldin eta biktima, lokala edo arau-haustearen helburua haren benetako edo susmatutako konexioa, sinpatia, filiazioa, laguntza edo talde bateko kide izatea direla-eta aukeratzen bada. Talde batek bere kideen ezaugarri komun batean oinarrituta egon behar du: benetako edo susmatutako arraza, jatorri nazionala edo etnikoa, hizkuntza, kolorea, erlijioa, sexua, adina, desgaitasun intelektuala edo fisikoa, sexu-orientazioa edo antzeko beste faktore bat”.*

Gorrito-diskurtsoa eta delituak hazten ari dira gure inguruan. David Martín Fuenlabradako udaltzaingoa ikuskatzaileak azaldu duenez, hiru dira gorrito-delituan eragina duten faktoreak:



01

Mezu bat: esaten ari naizena ontzat jotzen duen zerbait.

02

Helburu bat: LGTB jendeak, migratzaileak, baliabiderik gabeko jendea.

03

Konbentzitura dagoen norbait.

Testuinguru horretan, ulertu behar da ESLEk 9/09⁰¹ zenbakiko erabakian honako hau adierazten duela: *“Diskriminazio- eta intolerantzia-adierazpenak pertsonen segurtasunaren eta jendartearen kohesioaren aurkako mehatxuak dira, eta gatazka eta indarkeria orokortuak eragin ditzakete”.* Hala, ESLEk berretsi egiten du behatokiek defendatu duten teoria, hots, gorrito-diskurtsoak eraso fisikoaren jatorria baino ez direla.

Errealitate hori kezka ikusten ari da, bai Europatik, bai Estatutik, bai tokiko mailatik, eta ezagutzen ari garen datu batzuei erantzuten die, ez baitiote etorkizun positiborik iragartzen gorrito-diskurtsoen eta -delituen xede diren kolektiboak: LGBTI+ jendeari, migratuei, arrazializatuei, ezinduei, ijitoei.

Bereizi egin behar ditugu gorrito-delituak, zigor-legerian aitortzen den bezala, eta homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobia direla-medio izaten diren gorabeherak. Azken horien artean irainak daude, eta mehatxuak, barregarri uztea, lapurretak eta ebasketak, eraso fisikoak edo zerbitzu bat ez ematea sexu-orientazioa edo genero-identitatea direla-eta izaten diren

aurreiritzien edo gorrotoen ondorioz (hori guztia biktimaren irizpidearen arabera, edo hirugarren pertsona batena, lekuko batena edo beste norbaitena, zeinari biktimak kontatu dion gorabehera).

Oso garrantzitsua da nabarmentzea gorabehera guztiak ez daudela jotzen legedian gorroto-delitutzat, eta, horrenbestez, administrazioek ez dituztela eraso-mota guztiak zenbatzen. Funtsezkoa da puntu hori kontuan hartzea elkarrekin eta mugimendu sozialek jasotako erasoen emaitzak eta erakundeenak zergatik ez datozen bat ulertzeko.

Segurtasuna bermatu eta justizia eman behar duten profesionalen prestakuntza falta, salatutako egitateen kopurua eta gertatzen diren eta salatzen ez diren egitateak ez ezagutzea: horra hor gorroto- eta diskriminazio-delituak jazartzea zailtzen duten zenbait kausa.

Arrazismoaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordearen (AIEB) arabera, gorroto-diskurtsoak arraza-gorrotoa, xenofobia, antisemitismoa eta intolerantzia oinarritutako beste gorroto-mota batzuk zabaltzen, bultzatzen, sustatzen edo justifikatzen dituzten adierazpide guztiak hartzen ditu barne, besteak beste: nazionalismo oldarkorra eta etnozentrismoa, gutxiengoen, etorkinen eta etorkinen aurkako diskriminazioa eta etsaitasuna.

Zigortzen dena ez da ideia batzuk berez adieraztea, oso gaitzesgarriak izanik ere, baizik eta adierazpen hori gorrotoa, diskriminazioa edo indarkeria eragiten duten moduetan eta inguruabarretan egitea, zenbait balio konstituzional urratuz, hala nola pertsonen duintasuna eta ez diskriminatzea jaiotza, jatorri, sexu, erlijio edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial direla-eta (Konstituzioaren 10. eta 14. artikulua).

Eztabaida handia dago pertsonen duintasunaren eta adierazpen-askatasunaren oinarritzko eskubideen arteko talkari buruz, eta auzitegien zenbait epai ekarri ditu. Hala, bada, Auzitegi Gorenak 2015/02/19ko epaian dioenez, adierazpen ideologikoaren askatasunak ez du gorrotoaren diskurtsoa babesten. Hala ere, ikusten dugu auzitegien erabilera partziala dela, eta LGBTBI+ jendeak kolektibo gisa babesik gabe uzten ari bada ere, gehiegizko babesa ematen diela kalteberak ez diren beste kolektibo batzuei, hala nola Elizari edo Segurtasun-indar eta kidegoei. Horren erakusgarri dira, esaterako, Abel Azcona artistaren aurka ireki diren ekimen judizialak, elizari buruz egiten dituen lanengatik, edo Segurtasun-indar eta kidegoko kideak gorroto-delituen objektutzat jotzeko saiakeragatik, Altsasu kasuan, adibidez. Gasteizko Gotzainak zabaltzen dituen berresleipen terapiak, ordea, ez dira delitutzat jotzen. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ustez, adierazpen-askatasunak ez ditu gorroto-diskurtsoak babesten.

LGTBI+jendearekiko gorroto-diskurtsoak kolektibo hori baztertzea ekarri du, eta ikusezintasunera jo behar izan du gure jendartean biziraun ahal izateko, non zisheterosexualitatea eta binarismoa nagusiak eta baztertzaileak baitira. LGBTBI+ pertsonen eskubideak bermatzen dituzten aurrerapen legal eta sozialak lortu diren arren, sexu-orientazioa eta genero-identitatea dira, hain zuzen, gorroto-delituen arrazoi nagusietako bat.

Homofobia

George Weinberg psikologoa hasi zen erabiltzen homofobia terminoa, hirurogeiko hamarkadan. 1972an argitaratu zuen liburuan (La sociedad y el Homosexual Saludable) aipatzen du. Weigmerrek zioen: *“Nik ez nuke inoiz paziente bat osasuntsutzat joko, homosexualitatearen aurkako*

aurreiritzia gainditu ez balu behintzat. Heterosexuala izanik ere, homosexualitatearekiko duen higuina benetan kaltegarria da eta harentzat". Bere lanean, Weinbergekek 'homofobia' terminoa sartu zuen lehen aldiz, homosexualitatearekiko ezinikusia adierazten duten pertsona heterosexualak aipatzeko. Weinbergen arabera, arbuio horri beldur bizi batetik dator: gizon eta emakume homosexualekin harreman estuan egotearen beldurra, baita beldur irrazional, gorroto eta intolerantziatik ere, heterosexualaz bestelako sexu-orientazioa dutenekiko.

Transfobia

Pertsona transexualek jendarte patriarkaletan ezarritako sexu/genero sistema hausteagatik jasaten duten arbuioa da transfobia. Pertsona horiek bereziki kalteberak dira, eta marjinazio- eta indarkeria-maila handia jasaten dute. Julia Serrano teoriko transfeministak, *Wipping Girl* liburuan, transfobiaren sustraiak sexismoan daudela argudiatzen du. Aipatutako egileak 'kontrakotasun sexismoa' deitzen dio horri, hau da, maskulinoa eta femeninoa elkar bazterten duten kategoria zurrinak direlako ustea, eta bakoitzak inoiz gainjartzen ez diren ezaugarri, gaitasun, trebetasun eta desio bakarrak dituelako ustea. Serranok kontrastatzen ditu sexismo oposizionala sexismo tradizionalarekin, gizonak eta maskulinitatea emakumeak eta feminitatea baino gehiago direlako ustearekin Transfobia pertsonak generoari eta genero-arauei buruz dituzten segurtasunik ezaz elikatzen dela argudiatzen du.

Jody Nortonek, zeina egile eta kritikari transgeneroa baita, zera dio: transfobia homofobiaren eta misoginiaren hedapena da. Nortonen ustez, transgeneroak, gayak eta lesbianak gorrotatuak izaten dira, eta haien beldur izaten da jendea, genero-rolak eta genero-binarismoa desfaiatzen eta ahuldu egiten dituztelako. Egileak dioenez, *"Gizon izatetik emakume izatera igarotzen duen transgeneroak transfobia pizten du, genero-banaketa bitarra desfaiatzen duelako inplizituki, eta banaketa horretatik ondorioztatzen da, hain zuzen, hegemonia politiko eta kultural maskulinoa"*.

LGTBI+ errealitateak, gaur egungo testuinguruan

Azken urteotan, zenbait ekimenek bilatu dute LGTBI+ errealitatea ezagutzea, bai gure udalerrian, bai beste instantzia batzuetan ere; zenbaitetan, konpromiso eta ekintzekin batera, LGTBI+ jendearenganako gorroto-delituaren aurka. Egindako azterlan bakoitzak bi ondorio nagusi islatzen ditu: bata, LGTBI+ jendeak delitu batzuen eta gorroto-diskurtso batzuen xede direla, azken urteotan areagotzen ari direnak; eta bigarrena, horietako gehienak ez direla salatzen. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziaren (OEA)⁰² arabera, infrasalaketa % 80koa da. Barne Ministerioaren datuei erreparatzen badiegu, ehuneko hori % 90ekoa da.

Salaketa ez jartzeko erabakia konplexua da, eta zenbait arrazoi izan ditzake atzean, baina ohikoenak honako hauek dira:

- **Errepresaliak jasateko beldurra.** Gorroto-delituen biktimengan ematen den elementu komuna da. Jasan duen delituak biktimarengan uzten dituen ondorio larrien ondorioz, salaketa jarriz gero berriz ere eraso gehiago jasateko beldurra dago.
- **Indarkeria eta diskriminazioa normalizatzea.** Pertsona batzuek bizitza osoa daramate gorrotoaren eta diskriminazioaren biktima izaten, eta horren ondorioz indarkeriazko jokabideak eguneroko bizitzan integratzen dituzte.
- **Erakundeekiko mesfidantza.** Biktimek uste dute ez dietela kasurik egingo edo salatzeak ez duela ezertarako balioko. Erakundeek biktimei emandako tratua funtsezkoa da konfiantza sortzeko eta salaketa jartzeko urratsa emateko.
- **Agintariek ez dakite biktimen errealitatea zein den,** eta horrek salatutako gertaeren inguruabarrak behar bezala ez baloratzea ekar dezake.
- **Egoera irregularrean dauden atzerritarrak** beldur dira ez ote dituzten herrialdetik kanporatuko salaketa jartzera joanez gero.
- **Biktimak uste du salaketa jartzen badu ez diotela sinetsi egingo.**
- **Intimitatea adierazteko beldurra.** LGTBI+ pertsona batzuek ez dute beren sexu-orientazioa edo genero-identitatea agerian utzi nahi salaketa jartzean.
- **Eskubideak ez ezagutzea.** Biktimek ez dakite non eta nola salatu.
- **Ekintzen eskaintza eskasa.** Ekintzak eskaintzeak aukera ematen dio biktimari bere eskubideak zigor-arloko prozesu batean baliatzeko.
- **Termino juridikoak ez ezagutzea.** Biktimak ez badu ulertzen transmititzen zaion informazioa, litekeena da berari dagozkion legezko ekintzak ez gauzatzea.

Gertuen dagoen errealitatea ezagutzeko, Gasteizko Udalak ikerketa bat egin zuen: *Desirak plazara. Gasteizko LGTBI biztanleriaren errealitateei buruzko diagnostikoa*⁰³. IKUSGUNEK askotan erabiltzen du azterlan hori bere diskurtsoa oinarritzeko; izan ere, diskriminazioei buruzko lekukotzak eta datuak ematen ditu zenbait arlotan (espazio publikoa; lan-eremua; osasun-arloa; hezkuntza-arloa; kirol-arloa; aisialdia; eta kultura), eta egiaztatzen du, bestalde, espazio publikoa dela LGTBI+ jendearentzako etsirik handienetako bat.

Datu hori 2018an lortu zen, eta bat dator Barne Ministerioak bere azken txostenean⁰⁴ argitara emandako gertakariekin, 2019ko datuekin: hiriko bide publikoan egiten dira gorroto-delituak gehienak, eta ondoren, etxebizitzan, establezimenduetan, kirol-instalazioetan, espazio irekietan eta erlijio-zentroetan. Txosten horrek berak ohartarazi duenez, gorroto ideologikoaren delituak % 8,6 igo dira 2019an. Horrekin batera, nabarmendu behar da kezka ikusten direla Interneten izandako gorabeherak, eta sexu-orientazioarekin eta genero-identitatearekin, ideologiarekin eta arrazakeria/xenofobiarekin lotutakoak direla ugariak.

03 <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/95/11/79511.pdf>

04 <http://www.interior.gob.es/documents/642012/3479677/informe+evolucion+2019/631ce020-f9d0-4feb-901c-c3e0a777896>

IKUSGUNEk horren guztiaren berri eman zuen bere urteko txostenetan. Horren ondorioz, *Zaindu zaitez*⁰⁵, zeinak Interneten babesteko tresnak eskaintzen dituen. Delitu horien gorakadaren ondorioz, Araba bigarren lekuan dago, Nafarroaren atzetik, Euskal Herriko probintzien artean gorroto-delituen tasa handienarekin 100.000 biztanleko (5,4); ondoren Bizkaia (5,1) eta Gipuzkoa (3,6) daude.

Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziak (OEA)⁰⁶ 2012az geroztik arlo horretan izandako aurrerapen urriei buruzko kezka adierazi du, eta iragarri du inkestatutako pertsonen % 43k azaldu dutela diskriminatuta sentitu direla beren sexu-orientazioagatik. Gainera, aipatzekoa da, horretaz gain, Barne Ministerioak emandako datuak: 2013tik, % 45 igo dira-eta gorroto-delituak.

Testuinguru globala eta europarra

Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko konpromisoak jasotzen dituzten lehen testuetako bat Yogyakartako printzipioak⁰⁷ dira. Haien gomendioetan, erakundeei eskatzen diete beren lanean sar dezatela LGTBI pertsonen giza eskubideen sustapena eta babesa, eta hori egin aurretik argitzen du *“giza eskubideak sustatzearen eta babestearen gaineko erantzukizunak dituzten eragile guztiek”* bete behar dituztela printzipio horiek.

OSCEk, 9/09⁰⁸ erabakian, intolerantziaren aurkako borrokan lidergoa hartzeko eskatzen die estatuei. Bada, 1. eta 3. puntuak nabarmenduko ditugu:

“1. Gorrotoak eragindako delituei eta intolerantzia-adierazpen bortitzei buruzko datu fidagarri eta estatistiko nahikoa bildu, mantendu eta argitara ematea”.

“3. Neurri egokiak hartzea, gorrotoak eragindako edozein delitu salatzeraz adierazteko biktimak, eta zera aitortzea: gorrotoak eragindako delitu guztiak salatzen ez direnez, estatuek ezin dute politika eraginkorrik egin. Horren harira, neurri osagarri gisa, gorrotoak eragindako delituen aurkako borrokan jendarte zibilaren ekarpena errazteko metodoak aztertu behar dituzte”.

Beste erreferentzia bat, denboran gertuagokoa, Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda⁰⁹ da, zeinaren 16.1 xedean, *“mundu osoko indarkeria-mota guztiak eta dagozkien heriotza-tasak nabarmen murriztea”* sartzen du, LGTBI+ jendearen aurkakoak barne hartuz .

Europako testuinguruan, egiaztatu da gorroto-delituen kopuruak gora egin duela, 2020an. Europako Batzordeak gorroto-diskurtsoak gehitu dizkie delitu horiei, eta arreta handia jartzen die arestian azaldutako arrazoiengatik. Hori dela-eta, Europako esparrua aintzat hartu behar da, eta pentsatu beharra dago nola hartu behar den esku esparru horretan. ECRIn azken txostenaren¹⁰ arabera, *“LGBTI pertsonen aurkako intolerantziaren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren erantzukizunaren zati handi bat gobernu-agintaritzei dagokie; izan ere, agintari horiek jendaurrean gaitzetsi beharko lukete gorroto-diskurtso LGBTIFobikoa, eta diskurtso horren*

05 <https://ikusgune.eus/files/2020/06/folleto-eusk.pdf>

06 https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra_uploads/pr-2020-lgbti-survey_es.pdf

07 http://yogyakartaprinciples.org/wp-content/uploads/2016/08/principles_sp.pdf

08 <https://www.osce.org/files/f/documents/5/2/67626.pdf>

09 <https://www.agenda2030.gob.es/>

10 <https://rm.coe.int/ecri-factsheet-lgbti-issues/1680a1960a>

kontrako narratibak sustatu beharko lituzkete, Gauza berea eskatzen die parlamentuetako ordezkari, alderdi politikoei, erlijio-erakundeei eta komunikabide profesionalei, haien posizioa erabili ahalko bailukete LGBTI jendearen aurkako gorroto-diskurtsoa prebenitzeko eta haren aurka egiteko”.

LGBTIQ jendearen berdintasunerako EBko Estrategiak¹¹ LGTBI pertsonen aurkako diskriminazioari aurre egitea eta haien segurtasuna bermatzea sustatzen du. Hala, animatzen ditu estatu kideak *“dauden jardunbide onenetan oinarritu daitezten eta beren ekintza-planak gara ditzaten”* LGTBIQ jendearen berdintasunaren alde. Estrategiak LGTBIQ jendearen desberdinkeriei eta erronkei heltzen die, eta datozen bost urteetarako ekintza espezifiko batzuk zehazten ditu, bereziki lege- eta finantzaketa-neurriak. Halaber, Europar Batasunaren delituen zerrenda zabaltzea proposatu du, gorroto-delituak sartzeko, bereziki gorrotora bultzatzea eta gorroto-delitu homofoboak; mugaz gaindiko egoeretan gurasotasuna elkarri aitortzeko legedia ere proposatzen du, besteak beste. Era berean, Estrategiak bermatzen du LGTBI jendearen kezkak behar bezala islatuko direla Europar Batasunaren politiken prestaketan, eta, horrela, beren aniztasun guztiarekin, seguru egongo direla eta aukera-berdintasuna izango dutela jendartean aurrera egiteko eta erabat parte hartzeko.

Estatuko testuingura

ILGA Europeren¹² urteko txostenaren datuen arabera, 2020an *“erretorikak eta diskurtso publikoak indarra hartzen jarraitu dute Espainian. Eskuin muturreko talde eta mugimenduek egindako adierazpenez gain, Alderdi Feministak ere jarraitu du transen aurkako kanpaina egiten. Gainera, PSOEko atal garrantzitsu batek ere diskurtso mota hori baliatu du, queer teoria eta genero autodeterminazioa feminismoarentzat mehatxu izan daitezkeela argudiatuz.”* Diskurtso-aldaketa hori bereziki mingarria da, Espainiako Gobernuko jende nabarmenetatik baitator. Tentsio horien ondorioz, etenda dago etorkizuneko LGTBI berdintasunaren eta trans jendearen berdintasunaren legeen erregistroa. Abenduan, Berdintasun Ministerioak iragarri zuen Trans Legearen zirriborroaren kontsulta publikoan egindako ekarpenen % 96k pertsona transen benetako berdintasuna babesten zutela. Kontsultak 96.000 ekarpen jaso zituen.

Ikuspegi interseksionalak eta feministak LGTBI+fobia lantzeko orduan duten garrantzia azpimarratu behar dugu. LGTBI+fobia matxismoaren ondorioa da, eta, matxismoa, aldi berean, gure sistema soziala definitzen duen patriarkatuarena. Gaur egun, kultura matxistak, alde batetik, gizon/emakume binarismotik kanpo dagoen edozein pertsona zigortzen eta kanporatzen du, eta, bestetik, emakumea menderatzen du, eta gizona hierarkia sozialaren gailurrean jartzen du. Gainera, ikuspegi horretatik, bi genero bitarren arteko harremana heterosexualitatearen arauaren arabera baino ez da ulertzen, non edozein disidentzia zigortzen den. Horregatik, aldarrikapen feministek eta heterosexismoaren aurkako borrokak helburu komun bat aurkitzen dute zapalkuntzen jatorria desagerrarazteko.

LGTBI jendearen aurkako indarkeriari dagokionez, Barne Ministerioaren azken datuek 278 gorroto-delitu dokumentatzen dituzte 2019an, sexu-orientazioa edo genero-identitatea direla-eta; 2018an, berriz, 271 izan ziren. Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziaren

11 https://ec.europa.eu/info/sites/info/files/lgbtiq_strategy_2020-2025_en.pdf

12 <https://www.ilga-europe.org/sites/default/files/2021/spain.pdf>

EU LGBTI Survey II¹³ izeneko inkestaren arabera, Espainian, gorroto-delituen biktimen % 16k baino ez diote LGTBI elkarte bati informazioa ematen edo salaketa jartzen dute poliziaren aurrean.

COVID-19aren pandemiak eta estatu-mailan hartutako osasun-neurriek eragin handia izan dute LGTBI+ jendearengan eta, bereziki, pertsona transengan, diru-sarreraren galerari, isolamenduari eta bakardadeari dagokienez. Aldi horretan, jende gehiagok jo du erakundeetara eta profesionalengana laguntza bila.

Euskal Autonomi Erkidegoko testuingura

Euskal Autonomia Erkidegoan, agerikoa da ez dagoela konpromiso argirik sexu- eta genero-aniztasunaren arloan. Zenbait urtetan politika horiek Eusko Jaurlaritzako Familia Sailean txertatu dira, modu anakroniko batez, eta horrela hutsalduta geratu da LGTBI+ jendeak nozitzen duen diskriminazioa eman beharreko arreta, ez baita ikuspegi feministatik edo Europako Batzordean indarrean dagoen gorroto-delituen ikuspegitik egin. Gaur egun, LGTBI politikak Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusian kokatzen dira, eta ez dute konpromiso espezifiko handirik arlo horretan.

Nabarmendu behar dugu, arau-esparruan, Euskadik ez duela oraindik lesbianen, gayen, transexualen, bisexualen eta intersexualen eskubideak bermatzeko lege espezifikorik (LGTBI); Nafarroa, Madril, Katalunia edo Balear Uharteak bezalako autonomia-erkidegoek, berriz, bai. Eta berezko arau-esparrurik ez egoteak lege-hutsunea eragiten du, eta horrek, halabere, Zigor Kodean jasota ez dauden gorroto-adierazpenak ahalbidetzen ditu.

Sexu- eta genero-aniztasunaren gaiari heltzeko erreferentziarik hurbilena ekainaren 28ko 14/2012 Legean bertan dago, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoan. Bertan jasotzen denez, EAEko administrazio publikoek *“transexualen eskubideak sustatzen eta babesten dituzten elkarte, kolektibo eta erakundeen aitortza eta egiaztapena babestuko dute”*¹⁴

Arartekoak gogorarazten du botere publiko guztiek betebeharra dutela 2020ko ekainaren 28ko Adierazpen Instituzionalean¹⁵: *“Arartekoak honako gai honetara erakarri nahi du arreta berriro: euskal botere publikoek pertsona guztien eta horiek barne hartzen dituzten taldeen benetako berdintasun eraginkorra eragozten duten trabak kentzen jarraitu behar dute, baita arlo honetan ere. Bide horri jada ekin zitzaion, Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko Eusko Legebiltzarraren ekainaren 28ko 14/2012 Legearen bidez. Sakontzen jarraitu beharra dago, ekintza positiboko eta gizartea sentsibilizatzeko neurriak hartuz -euskal erakunde sarea osatzen duten instantzia guztietan, tolerantzia eta elkarrekiko errespetua sustatzeko, eta talde horren kontrako diskriminazioaren aurrean, babes egokia eta eraginkorra bermatu eta eskaintzeko.”*

EAEko testuinguruan, politiketan LGTBI+ ikuspegia urrunen dagoenetako bat da, eta ez dator bat

13 <https://fra.europa.eu/en/publication/2020/eu-lgbti-survey-results>

14 <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/2012/06/28/14/dof/spa/pdf>

15 https://www.ararteko.eus/contenedor.jsp?layout=contenedor.jsp&seccion=s_fnot_d4_v1.js-p&contenido=13493&tipo=8&codMenuSN=18&codMenuPN=1&codResi=1&title=ARARTEKOAREN+ERAKUNDE-ADIE-RAZPEN+LGTBI+HARROTASUNAREN+EGUNA+DELA+ETA&nivel=1400&codMenu=291&language=eu

Europak arlo horretan hartutako konpromisoekin, konpromiso horiek LGTBIQ berdintasunaren aldeko ekintza-planak sartzeari eskatzen baitute.

Tokiko testuingurua

Ikus daitekeenez, Gasteizen testuingurua autonomikoa baino aurreratuagoa dago Europako gomendioak betetzeari dagokionez. "Hara! Genero Berdintasunerako IV. Plana"¹⁶ izenekoan sexu- eta genero-ikuspegia sartzeari Gasteizko Udalean LGTBI+ politikak sortzeko akuilua da, orain arte oso urriak izan direnak. Halaber, oso tresna erabilgarriak eman zizkiguten gure udalerrian bizi den LGTBI jendearen errealitatea eta eskaerak ezagutzeko (lehen aipatutako bezalako agiriak: *Desirak plazara eta Hara! Agenda*). Azken hori plangintza-dokumentu bat da, herritarren eta kolektiboen eskaerak jasotzen dituena, Udalarentzako ekintza eta konpromiso bihurtuz. Bestalde, ezin dugu ahaztu Jabekuntza Feministarako Eskola, LGTBI+ politikak oso modu egokian transbertsalizatzen jakin baitu; gaur egun, herritarren artean onarpen handia baitu.

IKUSGUNE- Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia bi bide paralelotan, eta batzuetan talka egiten dutenak, egindako lan honen guztiaren emaitza da: kalekoan eta erakundeenean. Proiektuak LGTBI+ subjektu politikoa eta esperientzia aktibista ehuntzea ahalbidetzen du, eta gorroto-delituen aurkako borroka komunerako baliabideak eta lankidetzak ematen ditu. IKUSGUNE proiektu aitzindaria da Euskal Herrian, eta, aipatutako beste proiektu batzuekin batera, Europako Batzordeak ezarritako konpromisoak eta erronkak betetzeko akuilua izan daiteke, bere helburu nagusiaren bidez: LGTBI+fobiaren aurkako borroka.

LGTBI+ elkarten jarduerak, konpromisoak eta parte-hartzea bat datoz deskribatutako Europako testuinguruarekin, eta ibilbide bat dakarte, zorrotasunetik, kezkatik eta konpromisotik abiatuta, gaur egun gorroto-delituen eta -diskurtsoen hazkundeari erantzuteko.

Zenbait hamarkadatan ez da LGTBI+ politikarik egon hiri honetan, nahiz eta aitzindaria izan zen sexu bereko bikoteen erregistroa ahalbidetzen zuen ordenantza onartu zuenean (1994an, José Ángel Cuerda alkate zela).

Gaur egun, berriz, IKUSGUNEri esker, gure hiria aitzindaria da berriro ere LGTBI+fobia behatzen, kasuak erregistratzen eta hari aurre egiteko tresnak bilatzen.



03

metodologia

Txosten hau egiteko, *iazko Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakari buruzko Txostenan* aplikatu dugun metodologian oinarritu gara kasuak hautemateko, baina LGTBI+ jendearen aurka erabiltzen diren indarkeriak mailakatzen saiatu gara, gehiegizko biktimizazioa saihesteko eta proportzionaltasuna zaintzeko.

Egoerak

Aurreko txostenetako metodologia bera erabili dugu antzemandako egoerak bereizteko, dagoeneko Madrilgo eta Kataluniako behatokitik aplikatu dena. Jende zehatz bati, leku zehatz batean, eta une zehatz batean, identifika dakizkieen gorabeherak bereiztera behartzen du metodologia honek.

Bigarren motan, aldagai horietakoren bat ez dagoenez edo ezagutzen ez denez, tratamendu desberdina ematen zaio, ez baititu premisa guztiak, gorabeheratzat joaz hura tramitatzeko, arreta-, laguntza- eta banakako erantzun-ibilbide batean sartuta.

Bildutako informazioa, batez ere Gasteizen gertatutakoari buruzkoa da, baina ez esklusiboki. Arabako lurralde historiko osoari begirada irekitzeko iraganean hartutako konpromisoari dagokionez, hiriburutik kanpo gertatu diren gorabeherak sartu ditugu, baita, probintzia honetan gertatu ez diren arren, Arabako protagonistak izan dituzten beste batzuk ere. Hori gertatzen da komunikabideetan jasotako gorabeherekin edo Gurutzetako Ospitaleko (Barakaldo, Bizkaia) Osakidetzako GIU-k (Genero Identitateko Unitatea) esparru instituzionalean gertatutakoekin.

LGTBI+fobia bidezko erasoen detekzioa

2017an, Lumagorri ZATEkook ikusi genuen Gasteizen areagotu egin zirela erasoak, batez ere gizonezko homosexualen aurka, hiriko eremu oso zehatz batean. Gertakari horien aurrean, protokolo bat aktibatu genuen. Hala, Gasteizko Sare Transbollarika sortu zen, eraso horiei erantzun antolatua emateko. Erasoak aurreneko aldiz jendearen aurrean salatu ondoren, 2017ko ekainean, sareak salaketa jartzeko telefono bat jarri zuen Gasteizko herritarren eskura, bai eta informazio-dokumentu bat ere, non sexu-orientazioa edo genero-identitatea direla-eta erasoaren bat jasan izanez gero jarraitu beharreko zenbait jarraibide azaltzen baitziren.

Sarea desegin ondoren, Lumagorri ZATEk kasuen bilketarekin jarraitu zuen, 2019ko ekainean IKUSGUNE eratu zen arte: Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokia. Telefono zenbaki hori gaur egun ere indarrean dago. Protokoloak zenbait hobekuntza izan ditu, hala nola webgunean atal bat sartu izana gorabeherak jasotzeko. (www.IKUSGUNE.eus)

Nabarmenezkoa da IKUSGUNEren bulegoa Gasteizko alde zaharrean dagoela, eta bertara ere hurbildu dira zenbait pertsona LGTBI+ jendearen aurkako indarkeriari buruzko informazioa edo arreta bilatzeko.

Zabalkundea

2019ko ekainean, IKUSGUNE sortu zen, eta, hori dela eta, erasoak hautemateko jauzi kuantitatiboaz, erregistro-tresnen profesionalizazioaz eta LGTBI+ jendeak eta jendarteak IKUSGUNE gehiago ezagutzeaz hitz egin behar da. Ezagutza hori ezin izan da erabat garatu azken urte honetan, pandemia dela eta, baina, nolahi ere, IKUSGUNEK zabalkundea egin du, prentsa idatzian, digitalean eta irratan.

IKUSGUNE ahalegindu da eragilea izaten konfinamenduan zehar, eta pedagogia egin du LGTBI+ kolektiboaren artean, segurtasun-neurriak errespetatzeko, zaintza-proiektuetan parte hartzeko eta erasoen telefonoa erabiltzeko, hitz egitea besterik behar ez zuen jende guztiari arreta handiagoa eskainiz.

Testigantzen bilketa

Aurreko urteko prozeduraren antzera, 2020an zehar eta txosten honetan jasotako azken kasuaren egunera arte, testigantzak jasotzen jarraitu dugu gure ohiko bideak erabiliz: sexu-orientazioa edo genero-identitatea direla eta izaten diren erasoerik buruzko informazio-telefonoa, sare sozialak; bilaketa aktiboa sare sozialetan; idatzizko prentsa eta prentsa digitala, eta 'ahoz ahokoa'. Azpimarratzekoa da webguneak (ikusgune.eus) salaketak online egiteko gune bat duela.

IKUSGUNErekin harreman zuzena izan zutenak ibilbide batean sartu ziren, haien testigantzak hitzez hitz jasotzeko. Behin hori egin ondoren, aurrez aurreko topaketa batean, elkarrizketa bat egiten zen, lasaiago eta luzeago azaltzea izan zezaten beren egoera. Laguntza-elkarrizketaren ondoren, egin beharreko urrats hauek baloratzen ziren: mediku-laguntza eta/edo laguntza juridikoa, salaketa publikoa, eta abar. Kasu guztiak eredu fitxa batean jaso dira.

IKUSGUNEri gorabeheren berri eman dioten pertsona gehienak 30 urtetik beherakoak dira. Inola ere ez dira 50 urtetik gorakoak. Gainera, gehien erabili den bidea telefonoa izan da, normalean WhatsApp bidez. Sare sozialetan eta komunikabideetan izandako 4 gorabehera jaso dira, jendarte osoari eragiten diotenak, adina alde batera utzita.

Indarkerien mailaketa

Indarkerien mailaketari dagokionez, IKUSGUNEk Laura Macayak Gasteizko Jabekuntza Feministarako Eskolaneskaintakotailerrean egindako zenbait gomendio hartu ditu ("Askatasuna, nahia eta baimena: eztabaida feministak indarkeria matxistari buruz"). Horietan, indarkeriak mailakatzea proposatzen da, gehiegizko biktimizazioa saihesteko eta proportzionaltasuna zaintzeko. Hona hemen IKUSGUNE en egiten ditugun gorabeheren 4 sailkapen:

01

ERASOA

LGTBI+ jendearen aurka edo kolektibo horrekin elkartzeagatik gerta daitezkeen indarkeria fisikoak eta/edo hitzezkoak, hala nola jipoiak, bultzadak, genero-adierazpenak barregarri uztea, irainak, mehatxuak...

02

GORROTO DISKURTSOA

LGTBI+ kolektiboarekiko gorrotoa sortzea bilatzen duten adierazpenak, haien aurkako diskriminazioa, estigmatizazioa edo indarkeria ere xede dutenak. Termino hori bat dator zenbait erakundek egiten dituzten gomendioekin, hala nola Europako Batzordearekin.



03

DISKRIMINAZIOA

Tratu desberdina eta kaltegarria ematen zaionean norbaiti haren sexu-orientazioa, genero-identitatea edo -adierazpena, jatorria, kultura, erlijioa... direla-eta.

04

ZISHETEROSEXISMOAREN ERREPRODUKZIOA

Bizimodu zis eta heterosexualak goraipatzea, sexu- eta/edo genero-disidentziarenak gutxietsiz, ikusezin bihurtuz, barregarri utziz edo gutxietsiz.

05

INTRAGENEROA

LGTBI+ pertsonen arteko bizikidetzaren esparruan gertatzen den indarkeria, harreman afektiboekin eta/edo sexuarekin lotuta dagoena.





04

datuen
analisi

Gertakari 01

Data: 2020/05/21

Tokia: App

Bidea: Telefonoz

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Eragindako jendea: Gay kolektiboa

Deskribapena:

Jakinarazi zigitenez, Madrilgo Erkidegoak kondenatutako coach-ak jendea heterosexual bihurtzeko terapiak iragartzen dituzten profilak agertu ziren, ligatzeko erabiltzen diren aplikazioetan. Deigarria da profil berri horren agerpena, lehen aldiz agertu eta urtebetera.

Analisia:

“Bihurtze-terapia” terminoak jendea baten genero-adierazpena, genero-identitatea edo sexu-orientazioa aldatzen saiatzeko erabiltzen diren praktika sasizientifikoak eta pertsonen eskubideen aurkakoak deskribatzen ditu. Medikuntzaren, psikologiaren eta zientziaren legitimazioaren pean gertatu dira esperimentuak eta abusuak. Herrialde askotan jarraitzen da terapia-mota horiek aplikatzen: elektrotxokea, ‘klinika’etan barneratze behartuak eta exorzismoak barne, orientazio sexual, identitate eta genero-adierazpen ezberdinetako jendeak beren burua mespretxuz bizitzera bultzatzen dituztenak, eta batzuetan muturreko ondorioetaraino ere heltzen direnak: suizidioa.

Herritarrak tratamendu ez-eraginkor eta krudeletatik babestu behar dira, eta, horretarako administrazioek tratamendu horien aurka egin behar dute edo debekatu egin behar dituzte.

Gertakari 02

Data: 2020/05/23

Tokia: Kalea

Bidea: Telefonoz

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Eragindako jendea: pertsona gay bat

Deskribapena:

Jakinarazi zigutenez, eztabaida batean salatutako gizonak iraindu zuen salaketa jarri zuena; behin eta berriz "marikoia" esaten omen baitzion etxetik irteten zen bakoitzean.

Salaketa jarri zen, eta gorroto-delituen fiskal andreari haren berri eman zitzaion.

Analisia:

Iraina LGTBI+fobiaren eraikuntza kulturalaren oinarrizko formetako bat da. Desohorea da gaitzespen-sentsazioa sortzeko eta gorrotoaren diskurtsoa sustatzeko lehen urratsa.

Salaketajudiziala, LGTBI+fobiagaitzesten duen adierazpen instituzionalarekin batera, Gasteizko Udalak bere gain hartzen dituen tresnak dira, LGTBI+jendearen aurkako diskriminazioari aurre egiteko sentsibilizazio eta konpromisoaren gakoak.

Gertakari 03

Data: 2020/05/26

Tokia: Etxea

Bidea: Komunikabideak

Tipologia: Eraso

Eragindako jendea: Emakume
trans bat

Deskribapena:

Jakinarazi zigutenez, emakume trans batek, zeina langile sexuala baita, ordaintzeko eskatu zionean bezero bati, gizonak zera erantzun zion: lehenik biluztu egin behar zela, eta ukituak egin zizkion. Borrokan hasi omen ziren; bezeroak kolpeak eman omen zizkion aurpegian emakumeei, eta 20 € lapurtu.

Analisia:

Trans populazioa kaltebera da, eta egoera hori areagotu egiten da, batez ere bizirauteko modu bakarra lan sexualean aritzea duten emakume transen kasuan. Araudirik ezak, dela jatorriagatik dela jardueragatik, egoera baztertzailan, ezkutukoan eta hauskorrean jartzen ditu, eta egoera hori delituak egiteko baliatzen da, zigorrik gabe geratuko direlakoan.

Kasu honetan, biktimak gertaerak salatzeke izan duen jokabideak argi erakusten du salaketa tresna garrantzitsuenetako bat dela trans-errealitateak dakartzan arrisku-egoerak ikusarazteko. Haien eskubideak babesteko arauak falta direla azpimarratu beharra dugu.

Gertakari 04

Data: 2020/06/02

Tokia: Kalea

Bidea: Telefonoz

Tipologia: Erasoa

Eragindako jendea: Gay bat

Deskribapena:

Jakinarazi digutenez, 02: 45ak aldera, gorabehera honen berri eman digun pertsona lagun batzuekin zebilen Gasteizko erdigunetik. Erasotzailea gerturatu, eta "marikoi zikina" eta "aurpegia moztuko dizut" esan omen zion. "Zer gertatzen zaizu?" erantzun omen zion, eta erasotzaileak: "Hil egingo zaitut, marikoa", "Nahiago nuke hilko bazina", "Zartatuko zaitut"... eta labana bat atera zuen. Salaketa jarri duena garrasika hasi zen; haren adiskideak korrika egin zuen, eta bultza egin zion erasotzaileari. Erasotzaileak alde egin zuen, honelakoak oihukatuz: "Etorri, hil egingo zaitut eta", "Etorri, hain ausarta bazara". Adiskideak Ertzaintzari deitu zion.

Salaketa jarri eta epaiketa azkarra egin zen, baina biktima ez zen bertaratu, antsietateak jota zegoelako.

Analisia:

LGTBI+ jendearentzat kalea etsaitasunezko gun e handienetariko bat izan daiteke. Gauak errazten du espazio publikoan gorroto-diskurtsoak azaltzea.

Azken bolada honetan ikusten ari gara legitimizatzen ari direla ultraeskuinaren sektoreen gorroto-diskurtsoak, eraso gordinagoen haztegia direnak. Salaketa ezinbesteko tresna da, baina, halaber, eskasa inplementazio judizialean eraginkortasun handiagoa lortzen ez bada, kasu honetan gertatu zen bezala.

Gertakari 05

Data: 30/06/2020

Bidea: Web e-mail

Eragindako jendea: Otros

Tokia: Programa de televisión

Tipologia: zisheterosexismoaren erreproduzioa

Deskribapena:

Telebista-kate publiko baten audientzia goreneko telebista saio baten emanaldian, aurkezleak emaztearekin duen harremanari buruzko galdera batzuk egin zizkion lehiakide bati, ezkontzaren ikuspegi heteronormatibo eta interes morbosoa eta lesbofobo argiarekin.

Analisia:

Ezin onartuzkoa da komunikabide publikoak aurreiritzi LGTBI+fobikoak adierazteko bide bihurtzea. Jasotako kritiken aurrean, telebista-kateak komunikatu bat kaleratu zuen, eta elkarrizketa hori desenkusatu zuen, audientzia handia eta saioaren ibilbidea zirela eta. Ildo horretan, beste aurkezle batek zalantzan jarri zuen kritika horiek "jendarte bidezkoagoa, berdinzaleagoa, modernoagoa, demokratikoagoa" sustatzen ote duten, eta "epaiketa sumarisimoak, zigorrak edo inkisizioa" egitea leporatu zien.

Ikuspegi informalak erabiliz kolektiboaren irudi okerra sortzeak generorolen errealitate LGTBI+ erredukzionista eta betiketzailea transmititzen du, heteronormatibitate urruntzen den oro barregarri gera dadin.

Beharrezkoa da komunikabideek jardunbide egokien kode deontologikoak eta/edo eskuliburuak izatea, eta kode horietan, besteak beste, sexu- eta genero-aniztasunaren kazetaritza-tratamendua jasotzea.

Komunikabide publikoetako ikus-entzunezko kontseiluek, zeinak autoerregulazioaz arduratzen baitira, langileen jardunbide egokiak zaindu behar dituzte, erreferentzia izan daitezen orientazio eta identitate sexua-generikoarekin lotutako edukiak lantzeko orduan.

Kritikaren aurrean, saio horren arduradunek hausnarketari ekin beharko ziotkeen, are gehiago telebista publiko baten espazioan.

Gertakari 06

Data: 2020/07/15

Tokia: Etxea

Bidea: Web

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Eragindako jendea: Lesbiana

Deskribapena:

IKUSGUNEren webgunean mezu elektronikoa jaso genuen, non 24 urteko neska batek beste emakume batekin harremana duela iragarri duenetik jasaten ari den jazarpenaren berri eman zuen. Antsietateak jota eta beldurtuta omen zegoen. Familian, ordutegi eta arau berriak jarri zizkieten, familia apurtzen ari dela leporatzeaz gain.

Egoera ekonomiko eskasa duenez, ezin du familiaren etxetik alde egin.

Analisia:

Familiaren etxea ez da beti leku segurua, babes eta zaintza ematen dituen. LGTBI+ jendearentzat guztiz kontrakoa izan daiteke: etsaitasuneko eremua, eta bortitza. Elkarbizitza gertakari krudela bilakatu daiteke, eta ondorio larriak ekarri osasun mentalari eta garapen pertsonalari, gurasoen usteak direla-eta, seme-alabak inbertsio sozioekonomikotzat hartzen dituztelako, eta, haien beldurrak direla eta, gazteei gehiegizko babes ematen dietelako, autonomiarik eza eraginez.

COVID-19aren ondorioz, gazte LGTBI+ei bortizki murriztu zaizkie harremanak eta soziabilitate-espazioak, beren burua espazio "zikiratzaile" batean egotera behartuta ikusi zuten, zeina trauma iturria izan daitekeen, eta sozializazio- eta harreman-espazioek dakartzaten ihesbiderik gabe (eta espazio horiek ezinbestekoak dira nerabe LGTBI+ nerabeen eta gazteen garapenean).

Gertakari 07

Data: 2020/07/21

Tokia: App

Bidea: Sare sozialak

Tipologia: Diskriminazioa

Eragindako jendea: Gay

Deskribapena:

Harreman sexualen aplikazio batean, "I love Patriarchy" izena duen profil bat agertzen da, honela deskribatuta: "Ez-bitarrak eta gainerako gaixo mentalak abstenitu".

Analisia:

Zoritxarrez, sexu-harremanetarako aplikazioek ematen duten anonimotasuna lagungarria izan daiteke gorroto-mezuak adierazteko. Genero-identitate bat gaixotasun mental batekin konparatzea mespretxuaren eta bazterketaren adibide argia da.

Gertakari 08

Data: 2020/07/27

Tokia: Etxea

Bidea: Sare sozialak

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Eragindako jendea:

Bestelakoak (kargu publikoa)

Deskribapena:

Gasteizko kargudun publiko bati aurpegiratu zioten "marikoikeria" zela hark heriotza eragin zuen gertakari tragiko bati buruz emandako Tweet bati erantzunez.

Analisia:

Beste behin ere ikusten dugu nola oraindik ere erabiltzen den gay jendea aipatzeko terminologia, genero-estereotipoei jarraikiz, ustez femeninoa diren behe-mailako ezaugarri batzuekin lotuta: ahuleziarekin eta sendotasunik ezarekin. Diskurtso matxistaren oinarria da hizkuntza erabiltzea genero-identitateak hierarkizatzeke, eta oso modu iraingarrian erabiltzen da hura betikotzeko.

Gertakari 09

Data: 2020/07/28

Tokia: Parkea

Bidea: Telefonoz

Tipologia: Eraso

Eragindako jendea: emakume
trans bat

Deskribapena:

Biktimak azaldu zuenez, parke batean zegoenean, mugikorra eskuan, bost gizonen inguratu zuten. Haietako batek sexu-harremanak izatea proposatu omen zion, eta biktimak ezetz erantzun. Alde egiteko jaiki zen. Etxera zihoanean, erasotzaileak atzetik jarraitu omen zion, eta, temati, behin eta berriz egin zion proposamen bera. Biktimaren ezezkoaren aurrean, iraintzen hasi zitzaion: "marikoi, zoaz zure herrialdera, puta, ospa hemendik" bezalako esaldiak botaz, eta ukabilkada bat eman zion kokotsean, baita zenbait ostiko ere. Biktimak ihes egitea lortu zuen, eta, etxera iritsi zenean, Ertzaintzari deitu zion. Ertzainek ospitalera lagundu zioten, eta, ondoren, ertzain-etxera, salaketa jartzeko.

Analisia:

Kasu horrek agerian uzten du nola egoera soziala ahulenean dauden gorputzetan tematzen den kalteberatasuna. Ikuspegi interseksionaletik, arrazalizazioa, genero-adierazpena, klasea eta jatorri kulturala eta/edo etnikoa funtsezko faktoreak dira sistema zisheteropariarkalak dakarren zapalkuntza, bazterketa eta indarkeriaren analisian.

Biktima migratzailea da, sexu-orientazioa eta genero-identitatea direla-eta asilo politikoaren eskatzailea, emakume transexuala, eta ez du ezagutzen hemengo hizkuntza. Hiriko parke batetik ibilaldi soil batean, jazarri, umiliatu eta eraso egin zioten, haren genero eta arrazismo adierazpenagatik.

Administrazioen lana zuzena izan zen, baina azpimarratzekoa da ez dela bizkor ibili asilo-eskaria ebazteko orduan, eta horrek are ahulago bilakatzen du pertsona hori, baliabiderik gabe jendarteratzea eta haren autonomia pertsonala lehenesteko.

Gertakari 010

Data: 2020/08/21

Tokia: Etxea

Bidea: Komunikabideak

Tipologia: Intrageneroa

Eragindako jendea: Gay

Deskribapena:

Norbait saiatu omen zen fisikoki erasotzen biktima, gay-bikote batek partekatzen duen etxean. Biktimak Ertzaintzari deitu zion, eta bertan agertu zen. Haren izua eta erasotzailearen jarrera bortitza ikusita, poliziak erasotzailea atxilotu zuen.

Analisia:

Oraindik adostasun sozialik gabe 'genero barruko indarkeria' deitutako kasu bat da. Genero bereko bikoteek ere harreman-eredu heteronormatiboak kopiatzen dituzte, harremanen oinarri diren eraikuntza sozial asimetriko eta desberdinei ihes egin ezinik. Monogamia, jabetza, fideltasuna eta mendekotasuna 'maitasun erromantikoaren' bektore giltzarriak dira, eta bikote eta familiaren eredu heteropatriarkala eraikitzen dute, matxismoa betikitzen duena.

Gertakari 011

Data: 2020/10/11

Tokia: Kalea

Bidea: Telefonoz

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Eragindako jendea: Trans

Deskribapena:

Mutil trans nerabe batek azaldu zuen, dei baten bidez, bere koadrilarekin zegoela, adin bereko mutil batzuen irainak jasotzen ari zela ("mutila edo neska zara", "marimutilak zoazte sukaldera"...). Kezka eta zalantza adierazi zituen erasoaren izendapenez: transfobia, lesbofobia edo matxismoa ote zen.

Analisia:

Zoritarrez, oso ohikoak dira nerabeen artean irain LGTBI+fobikoak. Jarrera horiek indarrean jarraitzen dute, batez ere jarrera ziseterokentroei dagozkienak, baina LGTBI+ errealitatearen "aliatu" direla adierazten dutenak ere. Uste dute heziketa dela, besterik gabe, LGTBI+ jendeak jasaten dituen indarkeria-mota desberdinen konponbidea. Hala ere, hezkuntza, edo, zehazkiago, hezkuntza afektibo-sexuala, erreformaz erreforma, ez dago ikasgeletan, edo arriskueta oinarritutako ikuspegi prebentibo hutsarekin ematen da.

Ez dugu ikastetxe publiko edo itundu motaz hitz egiten, non azken horiek askotan LGTBI+fobia-ideologiak dituzten, LGTBI+fobia sustatzen jarraitzen baitute. Azkena izan da 'pin parental' delakoa martxan jartzea, muturreko eskuinak hezkuntza-politikan duen eskaera 'izarra'.

Gertakari 012

Data: 2020/11/05

Tokia: Erakundea. Ospitalea

Bidea: Telefonoz

Tipologia: zisheterosexismoaren

Eragindako jendea: Gizon trans
bat

erreprodukzioa

Deskribapena:

Salaketa jarri duena osasun-zerbitzu publikoetara odola ateratzera joan zenean, ebakuntza kirurgiko bat egiteko, konturatu omen zen erauzketa-orrian Genero-Nortasunaren Nahasmenduaren diagnostikoa jasotzen zela. Eta Genero Identitatearen Unitatera joan zenean, ebaketa egitera, ikusi zuen dokumentazio klinikoan "genero-identitatearen nahasmendua" nozitzen duela agertzen dela. Pazientearen arreta-gunera joan zen, diagnostiko horri buruzko kexa jartzera, eta 14/2012 Legea aipatuz.

Analisia:

Kasu hau paradigmaticoa da LGTBI+ eskubideen aldeko legediak ez direla batere ezarri, edo oso motel ezarri direla frogatzeko orduan, batez ere osasunarekin lotutako gaiak bezalako gai hain beharrezko eta praktikoetan. Legeak promulgatu ondoren, beharrezkoa da horiek abian jartzean sakontzea, lexikoan, erregistroetan eta erakundeetako tratuan aldaketak lortzeko.

Gertakari 013

Data: 2021/02/17

Tokia: Lana

Bidea: webgunea. Posta elektronikoa

Tipologia: zisheterosexismoaren erreprodukzioa

Eragindako jendea: beste batzuk

Deskribapena:

Posta elektronikoko bidez jakinarazi ziguten merkataritza-zentro baten arduraduen enpresa batek sexu-orientazioarekin lotutako galderak egiten dituela lan-elkarrizketetan.

Antza, bi langileri egindako lan-elkarrizketa batean gutxienez hiru aldiz egin zizkieten genero-identitateari eta sexu-orientazioari buruzko galderak. Galdera horiek erantzun zituzten pertsona batzuek lana lortu omen zuten; beraz, badirudi erantzunak ez direla erabakigarriak lanpostua lortzeko. Kasuetako bat Interneten dago salatuta, eta merkataritza-gune horri buruzko beste gorabehera bat dago jasota IKUSGUNEren aurreko txostenean.

Analisia:

IKUSGUNEren aurreko txostenetan egiazta daitekeenez, LGTBI+ jende askok, batez ere beren genero-adierazpenak edo -identitateak wbegirada zisheterozentratua desitxuratzen duenean, arazoak dituzte laneratzeko orduan. Enpresek ez diete langileei sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruz galdetu behar, ez lan-elkarrizketa batean, ezta beste une batean ere. Informazio mota hori jendeak berak bakarrik eskaini behar du. Horrelako gaiei buruz galdetzeak erakusten du sexu-orientazioa eta genero-identitatea direla-eta izaten den diskriminazio-kasu baten aurrean egon gaitzkeela.

Gertakari 014

Data: 2021/03/01

Tokia: Hedabideak

Bidea: Webgunea

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Eragindako jendea: Trans kolektiboa

Deskribapena:

Gasteizko Udalaren Herritarren Postontzian, elkarte batek egindako kartel bati buruzko salaketa bat jaso zuten; kartelaren gainean "Muerte a las trans" agertzen zen idatzita.

Kartelak "100 % mujer sin prejuicios añadidos" leloa jasotzen du, eta hainbat instituzioen logotipoa dauka.

Analisia:

Gorroto transfobikoaren diskurtsoak edozein aukera baliatzen du agertzeko. Kasu honetan, leloa emakume transen sexu-portzentalitate osoaren apologiarekin nahasten du. Feminismoaren sektore batek esentzialismoz jotzea subjektu politikoa definitzeko ezin da inola ere baliatu balio gorroto-mezuak zabaltzeko.



05

eztabaida eta
ondorioak

Txosten honek 2020ko maiatzetik 2021eko apirilera bitartean izandako 14 gorabehera LGTBI+fobikoak jasotzen ditu. Aurreko urtean baino kopuru txikiagoa da (25), eta oso antzekoa 2017-2018 (15) eta 2018-2019 (13) txostenetan jasotakoarekin. Gorabeheren erregistroa murrizteak zerikusia du pandemia-egoera zaildu baitu datuak lortzea. Hala ere, argi ikus daiteke testuinguru horrek Gasteizko LGTBI+ kolektiboan izan duen eragina.

Illo horretan, nabarmendu behar da 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 21era bitarteko etxeko konfinamendu-aldian gertatu direla gorabeheren % 36. Aldi horretan, familia-eremuan gertatu ziren gorabehera gehien, eta, aldiz, murriztu egin ziren lan-eremuan izandakoak.

Bestalde, beti bezala, gorabehera gehienak udan izan dira. Dena den, mota guztietako jaiak bertan behera geratu zirenez, 4 puntu txikiagoa izan zen kasuen kopurua. Hala, 2019-2020 aldian, urteko garai horretan gertatutako gorabeherak guztizkoaren % 40 izan ziren, eta, aztertzen ari garen garaian, berriz, % 36.

COVID-19ak eragindako egoerarekin batera, pertsona transen berdintasun erreal eta eragingarria lortzeko Legeak sortutako polemikan parte hartu dugu. Legegintza-ekimen horren ondorioz, pertsona transen aurkako giroa sortu da, batez ere emakume transen eta bitarrak ez diren pertsonen aurka. Legearekin berarekin lotutako gezurrak zabaldu dira, eta transak eta queer teoria kriminalizatu dira.

Giro horrek diskurtso transfoboak sustatu ditu; gure ustez, diskurtso horiek gauzatzen hasi dira gure hirian, pertsona transen aurkako gorabeherak areagotu egin direlako, batez ere erasoei eta gorroto-diskurtsoei dagokienez.

Gorroto-triangeluaren eskemari erreparatzen badiogu — konbentzituta dagoen norbait, mezu bat eta helburu bat —, erraz identifika ditzakegu hiru elementu horiek jende transekiko gorroto-diskurtsoen eraikuntzan. Konbentzituta dauden pertsonak izango liriateke jendaurrean pertsona transen eskubideak zalantzan jartzen dituzten guztiak. Iruzurrak eta faltsukeriak zabaltzen dituen mezuak baliatzen dituzte horretarako, legegintza-ekimenarekin amaitzeko helburuz.

Diskurtso horiek, zenbaitetan esan dugun bezala, erasoaren haztegia dira. Horren erakusgarri da gorroto-diskurtsoa eta kolektibo transaren aurkako erasoak ehuneko berean igotzen direla eta lehen adierazleetan kokatzen direla.

IKUSGUNEren gorroto-diskurtsoen hazkundeari buruzko adierazleak bat datoz Barne Ministerioaren datuekin⁰¹, eta berresten dute 2013tik % 45eko igoera egon dela. Lumagorri ZAT elkarteak egindako lehen txostenean ditugun datuen arabera, gorroto-diskurtsoak % 13 izan ziren 2017-2018 aldian; % 23, 2018-2019 aldian; eta % 24, 2019-2020 aldian. IKUSGUNEren datuen arabera, gorroto-diskurtsoak % 43koak dira, gaur egun. Azken batean, Gasteizko LGTBI+fobiari


01 <https://twitter.com/desdelamoncloa/status/1285938650115715074?Lang=es>

buruzko datuak ditugunetik, gorroto-diskurtsoek 30 puntu egin dute gora.

Horregatik, oso egokia da arretaz begiratzea erasoen eta gorroto-diskurtsoen hazkundera, batez ere emakume transen aurkakoa, Europako Batzordearen gomendioekin bat etorriz.


IKUSGUNEK jasotako gorabeherak

14 gertakari ezagun, 2020ko maiatzetik 2021eko apirilera bitartean



2020 (maiatzetik-abendura)	11
2021 (urtarriletik-apirilera)	3

Urtaroaren arabera



Udaberria	4
Uda	5
Udazkena	2
Negua	3

Euskal Autonomia Erkidegoko Delituen Memoriaren arabera, 2020an, guztira, 241 gorroto delitu zenbatu dira; 2019an, 115; 2018an, 130; eta 2017an, 129. Ereduaren eta testuinguruaren arabera, 117 arrazakeriatatik edota xenofobiagatik izan ziren, 50 orientazio edo identitate sexualagatik, 24 ideologiagatik, 1 orientazio erlijiosoagatik, 29 dibertsitate funtzionalagatik, 2 aporofobiagatik eta 16 sexuagatiko diskriminazioagatik.


Azken urtean, IKUSGUNEK gorabehera gutxiagoren berri izan du: 15, 2017-2018an; 13, 2018-2019an; 25, 2019-2020an; eta 14, azken kasu horretan. Hala ere, jasotako intzidentzien murrizketa hori estuki lotuta dago pandemia-egoerarekin, batez ere konfinamendurekin, horrek zaildu egin baitu indarkeria-egoerak salatzea. Beste askotan erasoak jai-ekitaldietan

eta mota horretako espazioetan izaten ziren, eta espazio horiek ez egoteak ere eragina izan du.

Azken urtean gorabeherak murriztu diren arren, urtaroen arabera banaketa ez da gehiegi aldatzen aurreko txostenarekin alderatuta. Udaberriean, 2019-2020an, gorabeheren % 28 gertatu ziren, eta kasu honetan, ehuneko hori % 28,57 baino ez da. Udan, gorabeherak % 40 izan ziren aurreko txostenean, eta oraingoan, berriz, % 35,71. Horren azalpena izan daiteke jai-gunerik egon ez izana. Udazkenean, gorabeheren % 16 gertatu ziren, 2019-2020an, eta % 14,29, azken urte horretan. Neguan nabaritzen da gehien gorabeheren igoera, aurreko urtearekin alderatuta: % 16tik % 21,43ra.

Azken urteko datu orokorretatik ateratzen baditugu 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 21era bitarteko konfinamendu-aldiari buruzkoak, 5 gorabeheren berri izan dugu, hau da, guztizkoaren ia % 36.

Erasoen tipologia




Transfobia	6
Homofobia	4
Lesbofobia	2
LGTBI+fobia	1
Intrageneroa	1

Transfobia nabarmen handitzen ari dela ikusten dugu. Aurreko txostenetan, gorabehera-kopuru handi samarra jaso arren, ez zen lehen postuan geratu. Hala ere, gorroto-diskurtsoa hedatzen ari den honetan, pertsona transen berdintasun erreal eta eragingarria lortzeko lege-proposamena dela-eta, pertsona batzuek transen aurka azaldu dituzten jarrerak zenbaitetan babesa aurkitu du, eta horrek guztiak oso egoera kezagarria eragin du.

Tipologiaren arabera gorabeherak honela bereizten dira: transfobia (pertsona transen kontrakoak), homofobia (gayen kontrakoak), lesbofobia (lesbianen kontrakoak), eta LGTBI+ kolektiboko kidea ez den norbaiten kontra izaten direnak erasotzaileak erasotua kolektibo horrekin lotzen duelako, edo LGTBI+ kolektibo osoa xede duten egoerak; azkenik, genero barneko indarkeria legoke, hau da, LGTBI+ harremanen barruan gertatzen direnak.


Lumagorri ZAT elkarteak 2017tik ditu datuak, eta hauxe izan da transfobiaren bilakaera, haien arabera:

Transfobiaren ehunekoak, txostenen arabera



2017-2018	7%
2018-2019	15%
2019-2020	12%
2020-2021	43%

Eraso motaren arabera




Erasoa	3
Gorroto-diskurtsoa	6
Bazterketa	1
Zisheterosexismoaren erreprodukzioa	3
Intrageneroa	1

Nabarmentzekoa da erasoen eta gorroto-diskurtsoaren gorakada nabarmena; izan ere, 2019-2020ko aurreko txostenean % 12 eta % 24 ziren, hurrenez hurren, baina, azken urte horretan, % 21 eta % 43raino igo dira.

Gehikuntza hori bat dator transfobiaren gehikuntzarekin aipatutako testuinguruan.

Lekuaren arabera




Gasteiz	11
Añana	1
Beste batzuk	2

Gasteizen jaso dira gorabehera gehien, Araban biztanle gehien dituen udalerrria delako, baina Añanako koadrila berriro agertu da txosten honetan, aurreko urtean bezala, eta han gertatutako gorabehera bat ere jaso da.

Beste bi espazioak telebista-gune bati eta Gasteizko bizilagun baten aurkako gorabehera bati buruzkoak dira, udalerrri horretan ez dagoen egoitza instituzional batean jazotakoa.

Eremuaren arabera



Eremu publikoa	4
Familia	3
Aplikazioak eta sare sozialak	3
Lanpostua	1
Instituzioak	2
Komunikabideak	1


Pandemiaren ondoriozko segurtasun-neurriak gorabehera, hala nola ostalaritza ixtea eta jai-gunerik ez egotea, kalean gertatzen dira oraindik ere LGTBI+fobiako gorabehera gehienak, batez ere kolektibo transaren aurka.

Hurbiletik jarraitzen diote familiak eta aplikazioek eta sare sozialek; biek garrantzi handia izan dute konfinamenduan, eta LGTBI+ jendearen aurkako etsaitasuna egiaztatzen dute.

Lehen aipatutako espazioetan datuek gora egin duten arren, nabarmentzekoa da lan-eremuan ere behera egin dutela, beste behin ere egoera pandemikoaren ondorioz, non jende askok

telelana egin duten. Datu garrantzitsu bat daukagu. Aurreko txostenean, familia-eremuan gertatutakoak % 8 ziren, eta familia-eremuan gertatutakoak, % 20. Aurten, % 21 eta % 7 dira, hurrenez hurren. 13 puntuko aldea dago, eta gora egiten du familian, lanpostuan behera egiteko. Beraz, LGTBI+ diren pertsonen aurkako indarkeria ez da murriztu, baizik eta mugitu egiten da eremu batetik bestera.

Eragindako jendearen arabera




Trans*-ak	5
Gay-ak	5
Lesbianak	1
LGTBI+ jendearekin lotzeagatik	3

Txosten honetako datuen banakapenean ikusten denez, kasu honetan ere kolektibo transa da gertakarietako buruzko datuen buru, gay kolektiboaren eta lesbianen atzetik dagoen kolektiboaren neurri berean. Datu horiek askoz ere txikiagoak dira, ikusezin bihurtu delako, eta, lehen aipatu dugun bezala, ikusezinasun hori indarkeria mota bat da, berez. Hori dela-eta, azpimarratu behar da lesbianen aurkako indarkeria noraino heldu den erakusten duen daturik izan ez arren, horrek ez duela esan nahi erasorik ez dagoenik, baizik eta diskriminazio handiagoa dagoela eta zisheterosexismoa ugaltzen ari dela.

Azkenik, LGTBI kolektiboarekiko loturak eragindako gertakariak nabarmentzen ditugu, hau da, LGTBI+ kolektibokoak edo haren aliatuak direla interpretatu delako erasotutakoak izan diren pertsonen aurkakoak.

Gertakariaren berri izan den hedabidearen arabera



Telefonoa	7
Webgunea	4
Sare sozialak	2
Komunikabideak	1



06

COVID-19a

COVID-19ak eta hura geldiarazteko hartutako neurriek desberdinkeriak eta diskriminazioa areagotu dituzte. "Normaltasuna" esaten zitzaiena salbuespena izan da jende askorentzat, baina salbuespen-egoera horietan, arauz kanpoko bizirauteko modu gisa gorpuzten da. Deseskaladak, garai bateko ustezko normaltasunera itzultzeak erakutsi du nola arauaren paradigmak indartsuenak ziren, pandemiari aurre egiteko moduak zisheteronormatibitatekanpoko beste bizimodu batzuk alde batera utziko balitu bezala.

COVID-19aren pandemian zehar, lesbianak, gayak, bisexualak, transak eta intersexualak (LGBTI+) elkarren artean gurutzatutako diskriminazioei aurre egiten ari dira, bai genero-identitateagatik eta/edo sexu-orientazioagatik, bai desberdintasun-faktore batzuegatik ere: migratzaileak izateagatik, edo gazteak eta nerabeak, adinekoak, dibertsitate funtzionala izateagatik, eta abar. IKUSGUNEen kezka behatzen ditugu kolektiboan izaten diren desberdinkeria-, bazterketa- eta alboratze-egoerak.

Gaiaren hurbilketa zorrotz bakarra "Perder la propia identidad" ikerlana da. "La adolescencia LGBTQA+ frente a la pandemia por COVID-19 y las medidas del estado de alarma en España" (R. Lucas Platero Méndez y Miguel Ángel López Sáez). Hala ere, IKUSGUNEen beste iturri batzuk ditugu, hala nola txosten honetan jasotako datuak, Lumagorri ZATEk konfinamenduan zehar antolatutako online lau solasaldi eta IKUSGUNE edo Lumagorri ZATEkin zerikusia duten pertsonekin izandako elkarrizketa informalak. Azpimarratzekoa da 2020ko azarora arte ez genuela lokal fisiko bat, hau da, egoitza sozial bat, eta horrek nabarmen murriztu duela gogoeta horiek fintzeko balioko zuten ekimenak antolatzeko aukera. Dena den, Lumagorri ZAT osatzen duten pertsonen erreferentzialtasunak gure udalerriko LGBTI+ biztanleriaren errealitatearekin harreman hurbilagoa eta askotarikoagoa izateko balio izan du.

Etxean geratu eta pandemiaren aurkako borrokan laguntzeko, LGBTI+ak diren haur, nerabe eta adinekoek etxean jarraitu behar izan dute. Etxe horietako asko, bereziki baliabide ekonomikoaren eskasiak gehien eragiten dituenak, espazioak txikiak dira, eta, horrela, gutxieneko intimitatea gorde ahal izango da. Gainera, ez dute Internetarako sarbiderik, eta horrek gabezia handia ekar diezaike nerabeei eta gazteei beren harreman sozialetan.

Familiaren etxea ez da segurtasun- eta zaintza-espazio bat LGBTI+ diren pertsonentzat, familian onartuak ez izan arren familiarekin bizitzera behartuta daudenenean. Horrek areagotu egiten ditu etxeko indarkeriaren eta abusu fisiko eta emozionalaren tasak, bai eta osasun mentalaren kalteak ere. Ezin ditugu ahaztu familiaren etxera, zaharrak zaintzera, itzuli behar izan duten pertsonak, horren ondorioz armairura itzuli behar izan dutenak, edo beren genero-adierazpena mugatu.

Lan-arloan, langabezian geratu diren edo administrazio-agiririk ez duten pertsona LGBTI+ak, gehien-gehienak, ekonomia informalean eta egituratu gabearen mende daude. Horrek esan nahi du ez dutela gaixotasunagatik baja ordaindurik izango, ezta langabeziagatik konpentsaziorik ere. Administrazio-agiririk ez izateak laguntza edo prestazio sozialak jasotzea eragozten die. Bestalde, askori oso zaila edo ezinezkoa egiten zaie lana lortzea, COVID-19aren murrizketen ondorioz; esaterako, sexu-lanean diharduten emakume transexualen kasuan, gehienak migratzaileak, babesik gabe geratu baitira.

Egoera hori arindu egingo litzateke Atzerritartasunari buruzko Legea indargabetuz gero eta Trans Pertsonen Berdintasunerako Legea eta sexu-lana baldintza duinetan egitea bermatzen duten zenbait jarraibide promulgatuz gero, autonomikoak edo tokikoak izanda ere.

Hala, pandemiaren eta diru-sarreraren iturrien galeraren ondorio sozioekonomikoek, halaber, areagotu egin dezakete LGBTI+ jendearen ahultasuna, eta, beraz, garrantzitsua da neurriak hartzea zera bermatzeko: biztanle zaurgarriek aukera bera izatea osasun publiko, segurtasun eta laguntza-zerbitzuetarako irispidea izateko, eta krisiaren eraso sozioekonomikoak gainditzeko. Horiexek dira LGBTI+ migratzaileek edo beste edozein arrazorengatik babesgabetasun-egoeran daudenek gainditu behar izan ditzaketen oztopoetako batzuk.

Gainera, areagotu egin dira LGBTI+ jendearen aurkako indarkeriara esplizituki edo inplizituki bultzatzen duten gorroto-adierazpenak, baita pandemiaren errua LGBTI+ jendea egoteari egotzen dioten agintari politiko edo erlijioso nabarmenen diskurtsoa⁰¹ ere. Era berean, COVID-19aren eramaileak arakatzeko zaintza teknologikoak areagotu egin ditzake pribatutasuna urratzeko eta estigma areagotzeko arriskuak, eta bazterretan dauden pertsonak zaurgarriagoak bilakatu daitezke poliziaren gehiegikerien eta atxiloketa arbitrarioen aurrean, mugimendu-murrizketen eta etxeratze-aginduen garai honetan.

Oro har, LGBTI+ jendeak diskriminazioa eta estigma aurkitu ditzakete osasun-zerbitzuetara jotzen dutenean, kontuan hartuta osasun-langileek ez dakitela arauz kanpoko sexualitateen berri eta ez dutela gai horri buruzko prestakuntzarik, zaila dela sexu-transmisiozko infekzioei buruzko kontsultetara iristea, tratamendu desegokia eman ohi zaiela pertsona transei, eta abar. COVID-19ak sortutako kalteak arintzeko, osasun-baliabideak berresleitu direnez, egoera horrek okerrera egin du. Gainera, administrazio-egoera irregularrean dauden LGBTI+ pertsona batzuk ez daude hain prest osasun-arreta jasotzeko edo beren osasun-egoerari buruzko informazioa emateko, beldur baitira, ez ote dituzte kanporatuko edo atxilotuko, edo ez ote dizikierten familia banaraziko.

Bestalde, nolabaiteko atzerapena erregistratu da antirretobiralen eta jarraipen-analitiken horniduran GIB+dun pertsonentzat, bai eta hormona bidezko terapian eta beste zerbitzu espezifiko batzuetan ere emakume eta gizon transentzat.

Osasuna eskubide unibertsaltzat jo behar da, hau da, LGBTI+ migratzaileek arreta medikoko zerbitzuetara jo ahal izatea ziurtatuko duena, haien orientazio sexuala, genero-identitatea edo estatus migratzailea edozein izanik ere, eta arreta medikoa bilatzeagatik diskriminaziorik edo ondorio negatiborik izan barik betiere.

Administrazioek eta beste eragile batzuek kontuan hartu behar dituzte LGBTI+ jendearen behar eta ahultasun espezifikoak, eta ziurtatu behar dute haien beharrak asetzen direla COVID-19aren uholdeei erantzunak sortzean.

COVID-19ak LGBTI+ jendearengan dituen eragin negatiboak heltzeko, ikuspegi interseksionala eta alde interesdunen konpromiso sendoa behar dira, funtsezkoa baita neurri berriek biztanleriaren sektore honetan nahi ez diren ondorioak izan ditzaketela pentsatzeko.

01 <https://www.marca.com/tiramillas/actualidad/2021/01/19/6006ff922601d6d5f8b45b.com/Mbewat-6d5f8b.com/MutubV?>
<https://www.youtube.com/watch?v=QrLCfMhtqqE>



07

trans

lege-proposamenaren
azterketa

Testuingurua

2014an, trans-mugimendua antolatzen eta alderdi politikoei transexualitateari buruzko lege bat (Trans Legea, hemendik aurrera) idazteko beharra eskatzen hasi zen. Prozesu horretan, Trans Legearen lehen zirriborroa idatzi zen, eta alderdi batzuek 2015ean erregistratzeko borondatea agertu zuten, baina 2018ra arte ez zen erregistratu lehen zirriborroa. Hala ere, hauteskondeak zirela eta Gorteak desegin ondoren, proposamena bertan behera geratu zen.

2019ko ekainean, kolektibo transek Trans Legea defendatzeko lehen manifestazio bateratura egiteko deialdia egin zuten, eta, urtebete geroago, Berdintasun Ministerioan parte hartzeko prozesu bat hasi zen. Prozesu horren amaieran, legearen bigarren zirriborroa idatzi zen. 2021eko martxoan, ERC, Más País-Equo, JuntsxCat, Cup, Nueva Canarias eta Compromis taldeek lege-proposamena erregistratu zuten Diputatuen Kongresuan, erakunde horren atarian zenbait ekintzaile transek egindako gose-greba baten ondoren.

Zirriborroak eta lege-proposamenak eztabaida handia sortu dute edukiaren zati baten inguruan. Egia da legeak ez duela aparteko neurririk jasotzen, baina aztertu nahi izan dugun lege honen eduki gehienak autonomia-erkidego batzuetan indarrean dauden beste trans-lege batzuetan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian oinarrituta daude. Gainera, nabarmendu behar dugu proposamen gehienak Europako Batzordearen gomendioetan finkatuta daudela, 2020-2025 LGBTIQ Pertsonen Berdintasunerako Estrategiaren esparruan.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) honela definitzen du "osasuna": *"osasuna egoera bat da, ongizate fisiko, mental eta sozial osoarena, eta ez gaixotasunik eza bakarrik"*, irmoki esan dezakegu trans kolektiboaren eskubideak trantsizio-prozesuei ukatzea osasunerako irispidea ukatzea dela, haren ongizate fisiko, mental eta soziala eragozten ari baita. Berdin gertatzen da izena eta/edo sexua aldatzea eragozten bada. Horregatik, erregistratutako legearen xedea da 20301 Agendaren 3. GIH betetzea, osasunari eta ongizateari buruzkoa. Ildo beretik, kalitatezko hezkuntzari buruzko 4. GJHa betetzen du hezkuntzari buruzko kapituluan, non transfobiaren eta trans pertsonen inklusioaren aurkako neurriak jorratzen diren. Genero-berdintasunari buruzko 5. GJHri dagokionez, lege-proposamena egin du, eta diskriminazioari aurre egiteko neurri batzuk proposatu ditu, bereziki emakume transen alde egiten dutenak; izan ere, talde horiek diru tratu defaboragarriena jasotzen dutenetako bat. 8. GJHk lan txukunari eta hazkunde ekonomikoari buruz hitz egiten digu. Kolektibo transaren kasuan, neurri jakin batzuei heldu behar zaie, lan-merkatuan sar daitezten. Neurri horiek, era berean, desberdintasunak ikuspegi interseksionaletik murrizteari buruzko 10. GJHari laguntzen diote. Halaber, bat egiten du 16.GJHrekin, bakeari, justiziarri eta erakunde irmoei buruzkoarekin. Ildo horretan, azpimarratu behar da diskriminazioaren aurkako lege hau herritarren partaidetzaz idatzi dela, proposamenaren lanketan egiaztatu den bezala.

Legeak, gainera, gure udalerrriaren esparruan dagoeneko errealitate diren esperientzia batzuk jasotzen ditu. Hala, Gasteizko LGTBI biztanleriaren errealitateei buruzko diagnostikoa egin da. Desirak Plazara, Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak edo Jabekuntza Feministarako Eskolak egindako prestakuntzek egina.

Kolektiboen parte-hartzea

Egungo lege-zirriborroa Berdintasun Ministerioan egin da, zenbait elkarte eta kolektibo transen parte-hartzearekin, hartzailleek parte-hartze aktiboa izan dezaten aurretiazko kontsulta publikoaren eta entzunaldiaren izapideen eta informazio publikoaren bidez. Aipatzekoa da Berdintasun Ministerioak 96.000 ekarpen jaso zituela izapide honetan, eta horietatik % 96 lege-proposamenaren aldekoak zirela.

Argi dago lege-proposamenak adostasun handia duela trans elkarten artean, eta betetzen duela Europako Batzordearen 2020-2025 LGBTIQ Pertsonen Berdintasunerako Estrategia, kolektibo horiek haiei eragiten dieten politiken diseinuan parte har dezaten sustatzeari dagokionez.

Genero-identitaterako eskubidea

Trans taldeak eta Berdintasun Ministerioak egindako lege-proposamenak generoaren determinazio askea aitortzen du. Kontzeptu hori Europako Kontseiluak jasotzen du, 2015ean 2048⁰¹ Ebazpenean, non eskatzen baitu *“prozedura azkarrak, gardenak eta eskuragarriak garatzea, **autodeterminazioan oinarrituak**, trans pertsonen erregistro-izena eta -sexua aldatzeko, jaiotza-ziurtagirietan, nortasun-agirietan, pasaporteetan, ziurtagiri akademikoetan eta antzeko beste dokumentu batzuetan”*.

Yogyakartako printzipioek generoaren autodeterminazioaren gaia ere jasotzen dute hirugarren printzipioan: *“Pertsona bakoitzak beretzat definitzen duen sexu-orientazioa edo genero-identitatea funtsezkoa da bere nortasunerako, eta bere autodeterminazioaren, duintasunaren eta askatasunaren funtsezko alderdietako bat da. Ez da inor behartuko prozedura medikoak egitera, sexua berresleitzeko kirurgia, esterilizazioa edo terapia hormonalak barne, bere genero-identitatea legez aitortzeko baldintza gisa”*.

Illo beretik jo du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ere: *“Genero-identitaterako eskubidea bizitza pribaturako eskubidearen adierazpen bat da, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikuluan aitortutakoa”⁰²*. Gainera, auzitegi honek aitortu du bizitza pribaturako eskubide horretan eragina izan dezakeela sexua adierazten duten dokumentu ofizialen bidez identifikatzeko beharrak, eta, horren ondorioz, pertsona transen kasuan legearen arabera duten sexua eta itxuraren arabera dutena ez datozela bat jakinarazteak estresa sor dezakeela, baita ahulezia-, umilazio eta antsietate-sentimenduak ere.

Europako Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Jendarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari⁰³ LGBTIQ 2020-2025 Pertsonen Berdintasunerako Estrategiari buruz egindako Komunikazioan honako hau adierazten du bere ekintzetan: *“Batzordeak estatu kideen artean jardunbide onenak trukatzeko sustatuko du, autodeterminazio-printzipioaren arabera eta adin-mugarik gabe, generoa juridikoki aitortzeko legeria eta prozedura eskuragarriak sartzeko moduari dagokionez.”*

01 <https://assembly.coe.int/nw/xml/XRef/Xref-XML2HTML-EN.asp?fileid=21736>

02 https://www.echr.coe.int/documents/convention_spa.pdf

03 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52020DC0698&from=EN>

Azpirarratzekoa da Auzitegi Gorenaren 685/2019 Epaia, zeinaren arabera, nazioarteko organo judizial nagusien jurisprudentziaren eta giza eskubideen defentsarako nazioz gaindiko erakunde nagusien dokumentuen arabera, eta jendearen duintasuna eta nortasunaren garapen askea errespetatzeko printzipioaren arabera (Konstituzioaren 10.1 artikulua) eta intimitaterako eskubidearen arabera (Konstituzioaren 18.1 artikulua), *“ezin da baldintzatu pertsona transexualaren genero-identitatearen aitormena sexua berresleitzeko edo antzutzeko ebaketa kirurgikoa edo terapia hormonalak egin izanaren arabera”*.

Genero-autodeterminazioa errealitate bat da jada Danimarkan (2014), Irlandan (2015), Maltan (2015), Norvegian (2016), Belgikan (2017), Portugalen (2018), Luxenburgon (2019) eta Islandian (2019). Espainiako Estatuan, Aragoiko (2018), Madrilgo (2016), Extremadurako (2015), Balear Uharteetako (2016), Murtziako (2016), Nafarroako (2017) eta Euskadiko (2018) lege autonomikoetan jasota dago.

Legean jasotako artikuluek zenbait eskubide ematen dizkiete pertsona transei, nortasunaren garapen askea errespetatzera eta haien segurtasuna ziurtatzera datozenei, Europako Batzordearen 2020-2025 LGBTIQ Pertsonen Berdintasunerako Estrategiak ere gomendatzen duen bezala. Estrategia horren arabera, *“ingurune bat sustatuko da, non delituen biktima diren LGBTIQ pertsonak seguru eta babestuta sentituko diren”*.

Nabarmenezkoa da atal honetan adingabe, adineko eta atzerritar edo aberrigabeen transak jasotzen direla.

Adingabe transexualei dagokienez, nortasuna eta osotasun fisikoa askatasunez garatzeko bermea jasotzen du, eta berme hori adingabearen interes gorena kontuan hartuta gauzatuko da beti. Ildo horretan, legeak eskubidea ematen die pertsona horiei beren genero-identitatearen arabera eremu guztietan entzunak izateko eta tratatuak izateko. Konstituzio Auzitegiak, uztailaren 18ko 99/2019 KAE epaian, uste du adingabeak eskubide horren eremu subjektibotik kanpo uzteak berekin dakarrela pertsona horiei ez aplikatzea nortasunaren garapen askearen printzipio konstituzionala, norberaren nortasunari buruz erabakitzeari dagokionez. Auzitegiaren arabera, *“Murrizketa hori bereziki handia da, jendearen lehen mailako adierazpen bat baldintzatzen duelako, eta, horren ondorioz, gizabanako gisa duen duintasunean eragin handia duelako, eta haren babesa Espainiako Konstituzioan ezarritakoa bezalako estatu konstituzional baten azken justifikazioa delako”*.

Lege-proposamenak jasotzen du genero-identitatearen arabera babesteko eta arreta integrala emateko eskubidea adineko pertsona guztientzat, bai eta arreta gerontologiko egokia eta harrera egoitzetan, non beren genero-identitatearen araberrako tratua jaso beharko duten.

Gainera, atzerritarrek edo aberrigabeek generoaren autodeterminazioa izateko duten titulartasuna eta eskubidea aitortzen dira, bertako pertsonen baldintza berberetan, eta jatorrizko herrialdeetan sexu-orientazioagatiko edo genero-identitateagatiko jazarpenetik babesten dira. Halaber, Espainiako agintariek igorritako dokumentazioan zehaztuko da jendeak askatasunez adierazitako sexua edo generoa, haren oinarrizko eskubideen aurkako frogarik eskatu gabe.

Erregistroko zuzenketa

Transexualek jasaten duten diskriminazioaren arrazoi nagusietako bat honetan datza: sexuaren eta izenaren eta dokumentazio ofizialean agertzen diren datuak bat ez etortzean.

Lege-proposamenak erregistroa aldatzeko eskubidea ematen die Espainian bizilekua duten trans guztiei: bertakoei eta atzerritarrei. Yogyakartako printzipioetako hogeita hamaseigarren printzipioa betez, non genero-informazioa aldatzeko eskubidea ezartzen den, hura barne hartzen duten dokumentuetan.

Adingabe transen kasuan, legeak hiru adin-tarte bereizten ditu: hala, hamabi urtetik beherakoek beren legezko ordezkarien bidez egin beharko dute erregistro-aldaketa, haien adostasunarekin eta onurarako. Hamabi eta hamasei urte bitarteko adingabeen kasuan, legezko ordezkarien berariazko adostasuna izan beharko du erregistro-aldaketaren eskaerak, eta, azken kasuan, hamasei urtetik gorako pertsonak daude, zeinek beren kabuz egin ahal izango duten dokumentuen aldaketa. Legeak adingabeen eta haien legezko ordezkarien arteko desadostasuna jasotzen du; kasu horietan, Kode Zibilaren 300. artikulua arabera, defendatzaile judiziala izendatu ahal izango da izapide horretarako.

Lege-zirriborroak kasu horietarako jasotzen dituen baldintzak honako hauek dira: interesdunaren edo haren legezko ordezkarien berariazko adierazpena, interesdunak beretzat jotzen duen izena eta/edo sexua, zuzendu nahi diren beharrezko datuak eta nortasun-agiri nazionalaren zenbakia adierazita, hala badagokio. Erregistro Zibilean inskripzioa egin ondoren, erregistro-aldaketa eragingarria izango da.

Erregistro-aldaketa egin ondoren, edozein agintari, organismo edo erakunderen aurrean eskatu ahal izango dute erregistro-inskripzioari egokitutako edozein dokumentu, titulu, diploma edo ziurtagiri berriz emateko. Gainera, prozesu hori irigarria, arina, datuak babesteko bermekin eta kostu eta tasetatik salbuetsita egongo da. Erregistro-aldaketak ez du aldatzen eskatzen duten pertsonen eskubideen titulartasuna, ez eta betebeharrak ere.

Neurri horiek Europako Kontseiluaren Parlamentuko Batzarraren 2048 (2015) Ebazpenari erantzuten diote. Bertan, estatuei eskatzen zaie prozedura azkarrak, gardenak eta eskuragarriak gara ditzatela, autodeterminazioan oinarrituta, pertsona transen izena eta sexua aldatzeko, jaiotza-ziurtagirietan, nortasun-txarteletan, pasaporteetan, hezkuntza-ziurtagirietan eta antzeko dokumentuetan. Era berean, osasun mentaleko tratamendu medikoen edo diagnostikoen derrigortasuna ezabatzea gomendatzen du, pertsona baten genero-identitatea aitortzeko beharrezkoak diren legezko baldintza gisa.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia berriak zera eskatu du, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua aplikatzean (bizitza pribatua errespetua izateko eskubidea): praktikan bermatu daitezela pertsona transexualek aukeratutako genero-identitatea islatzen duten dokumentu ofizialak izateko dituzten eskubideak, aldeztu aurretik prozedura medikoak izateko betekizunik gabe, hala nola berresleipen sexualeko eragiketa bat edo terapia hormonal bat.

Auzitegi Gorenak Konstituzioaren 10.1 artikuluan jasotako nortasunaren garapen askean oinarritu du jurisprudentzia-ildo bat, non faktore psikosozialei lehentasuna ematen baitzaie generoaren zehaztapenean, sexu-berresleipeneko ebakuntza kirurgikoa egitea saihestuz, sexuaren eta

izenaren aipamenak erregistro zibilean zuzentzea onartzeko.

Trans pertsonen berdintasun eraginkorra sustatzeko politika publikoak

Lege-proposamenak botere publikoak interpelatzeko beren eskumenen esparruan trans politiken diseinuan. Hala, pertsona transakjendarteratzeko estatu-estrategia egitea proposatzen du, lau urtean behin, lan-, hezkuntza- eta osasun- arloko ekintza positiboko neurriak jasokodituena. Estrategia horrek barne hartuko du ekintza positiboko neurri egokiak berri izatea ahalbidetuko duten azterlanak egitea, horiek diseinatzea ahalbidetuko duten adierazleak lortuko dituen diagnostiko argi batean oinarrituta. Estrategiak jarraipena eta ebaluazioa egin beharko ditu, haren eraginkortasuna eta betetze-maila aztertzeko.

Eraberean, administrazio publikoak gonbidatzen ditu sentsibilizazio-, ikusgarritasun-, dibulgazio- eta sustapen-kanpainak egitera, aniztasunarekiko errespetua sustatzera eta erakundeen aldetik pertsona transten berdintasun erreala eta eraginkorra aitortzera.

Lege-proposamenak erakunde publikoei eskatzen die, halaber, azterlanak eta inkestak sustatzeko, pertsona transten errealtatea ezagutzeko. Ildo beretik, prestakuntza ematea jasotzen du, legearen printzipio gidarien arabera.

Legearen beste alderdi interesgarri bat da prestakuntza-programak diseinatu eta ezartzea, epailtzeko profesionalak gaitzeko eta sentsibilizatzeko. Azkenik, atal honetan, jendea transexualek beraiei eragiten dieten politikan parte har dezaten sustatzeko konpromisoa hartzen du, bai eta beren helburuen artean kolektibo horren eskubideen defentsa duten jendarte-erakundeei laguntzekoa ere. Azken artikulua hori bat dator, beste behin ere, Europako Batzordearen 2020-2025 LGBTIQ Pertsonen Berdintasunerako Estrategiarekin.

Osasuna

Lege-proposamenak jasotzen duenez, printzipio hauek bete beharko ditu osasunaren arloan: patologiazorik eza, autonomia, baterako erabakia eta baimen informatua, diskriminaziorik eza, laguntza integrala, kalitatea, espezializazioa, hurbiltasuna eta segregaziorik eza. Ildo horretan, ohartarazi du inor ez dela behartu behar bere askatasuna hertsatzen duen tratamendu, prozedura mediko edo azterketa psikologikoa egitera.

Patologiarik gabeko ikuspegia bat dator Osasunaren Mundu Erakundearen 2018ko Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren (CIE-11) hamaikagarren berrikuspenarekin. Sailkapen horrek kendu egiten ditu gaixotasun mentalei eta portaerari buruzko kapitulutik transekin lotutako kategoria guztiak, trans-mugimenduak despatologizazioaren alde egindako urte askoren lorpen handia dena.

Gaixotasun psikiatrikoen diagnostikorik ez duten pertsona transei dagokienez, diagnostiko horrek ez du oztopatuko genero-trantsizioko prozesu bat hasteko adierazitako adostasunaren baliozkotasuna.

Gainera, legeak osasun-sistema publikora iristeko askatasunerako eskubidea ematen du,

betiere pertsona transen intimitaterako eskubidea errespetatuz, baita indarrean dagoen zerbitzu-zorroarekin bat datorren tratamendu integrala ere.

Adingabe transen kasuan, hormonien blokeoa aurreikusten da pubertaroaren hasieran. Ildo horretan, adingabeei eta haien legezko ordezkariak medikazioa atzeratzeko edo murrizteko aukeraren berri eman beharko zaie. Hamasei urtetik gorako pertsonen kasuan, haiek emango dute trantsizio-prozesuen mende jartzeko baimena; hamasei urtetik beherakoen kasuan, berriz, haien legezko ordezkariak emango dute baimen hori, adingabeak entzun ondoren. Haurren legezko ordezkariak bat ados jartzen ez bada, adingabearen erabakia babesteko prest dagoenari egokituko zaio oniritzia ematea. Haurren legezko ordezkariak osoa ez badago ados, defentsa judiziala izendatuko da, trans adingabearen interesak zaintzeko.

Esan beharra dago Nazio Batuen Haurren Eskubideen Batzordearen 14. ohar orokorrak⁰⁴ zehazten duela botere publikoek zer irizpideren arabera hartuko duten adingabearen interes gorena haiei dagokien edozein erabaki. Adingabe transaren genero-identitatea bere familia-ingurunean ez errespetatzea kaltegarria da haren garapen pertsonalerako. Hori dela-eta, lege-proposamena Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 17. artikuluan oinarritzen da: *“Arrisku-egoeratzat hartuko da, egoera, gabezia edo familia-, jendarte- edo hezkuntza-gatazkak direla eta, adingabeak bere garapen pertsonalean, familiarrean, sozialean edo hezitzailean, ongizatean edo eskubideetan kalteak jasaten dituenen”*⁰⁵.

Osasun-arloko esku-hartzeetan, betiere, jendearen adostasuna, aurrerapena eta markatzen duen ibilbidea errespetatuko dira, betiere informazioa hizkera argi eta ulergarrian eman bazaio eta bere autonomiaren aurkako irizpideen eraketan eragin nahi izan gabe.

Transexualen ugalketa-eskubideak ere aitortzen ditu legeak. Horrela, ugalketa-tekniken hartzaile edo erabiltzaile izateko gaitasuna dutenen eskubidea aitortzen da, bai eta ehun gonadalak eta ugalketa-zelulak izozteko teknikak erabiltzeko benetako aukera izatea ere, ugalketa-gaitasuna arriskuan jar dezaketen tratamenduak egin aurretik.

Azkenik, atal honetan jasotzen da terapia abertsiboen debekua edo genero-identitatea bihurtzen, deuseztatzen edo ezabatzen saiatzen den beste edozein prozedura.

Hezkuntza

Puntu honetan, lege-proposamenak aitortzen du ikasleek eta ikastetxeetako langileek eskubidea dutela genero-identitatea adierazteko eta aukeratutako izena askatasunez erabiltzeko. Horretarako, jendaurrean jartzeko administrazio-dokumentazio guztia zuzendu beharko da. Eskubide hori gauzatu ahal izateko, jendeak zein sexurekin eta izenekin tratatua izan nahi den jakinarazteko prozedurak ezarri beharko dira. Aurreko artikuluekin bat etorritik, dokumentu-zuzenketa ezingo da egin txosten medikoak edo psikologikoak erakustearen baldintzapean.

⁰⁴ https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/3990_d_CRC.C.GC.14_sp.pdf

⁰⁵ <https://www.boe.es/buscar/pdf/1996/B0E-A-1996-1069-consolidado.pdf>

Diskriminazioari eta jazarpen transfobikoari aurre egiteko, Administrazio Publikoak interpalatzen ditu trans ikasleei babes eta laguntza emateko protokoloak prestatzera.

Lan-mundua

Lege-proposamenak administrazio publikoak interpelatzen ditu lan-arloko kontzientziazio-estrategiak eta -kanpainak garatzera, ekintza positiboak inplementatzera eta pertsona transen jendarte- eta lan-egoeraren bilakaera ebaluatzera.

Hala, Lan eta Ekonomia Ministerioak Enplegu Politikako Urteko Planetan sartu beharko ditu pertsona transen enplegarritasuna hobetzeko beharrezko neurriak. Lege-proposamenak jasotzen duen neurri garrantzitsuenetako bat da, hain zuzen, enplegu-eskaintza publikoetan kupo bat gordetzea pertsona transentzat: administrazio bakoitzak zehaztu beharreko portzentaje bat. Lanpostu horiek eskuratu ahal izateko, egiaztatu beharko da izen-deituren eta/edo sexuaren erregistro-aipamena aldatu dela edo izapidetzen hasi dela; dokumentazio hori konfidentzialtasun zorrotzekoa izango da.

Era berean, pertsona trans-en kontratazioak hobaria izango du Jendarte Segurantzako kuotetan, 5 urterako.

Neurri horiek oso egokiak dira kontuan hartuta kolektibo transaren langabezia-tasa altua, batez ere trans emakumeena,% 80 ingurukoa baita.

Askatasunaz gabetzea, atxilotzea edo zaintzea

Lege-proposamenak aitortzen du askatasunik, atxiloketarik edo zaintzarik gabe dauden pertsona transexualek eskubidea dutela beren erregistroko sexuaren arabera tratatu eta bananduak izateko, haien osotasun fisikoa eta morala bermatuz.

Trantsizio-prozesu batean dauden askatasunik gabeko pertsona transexualei dagokienez, prozesuak aurrera egitea bermatu beharko da, bai eta, hala nahi izanez gero, hura hastea ere.

Bestalde, barneratze-zentroek transfobia prebenitzeko protokoloak diseinatu eta ezarri beharko dituzte, eta, gainera, pertsona transak uste badu erregistroan jasotako sexuaren arabeko tratamenduak bere bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan jar dezakeela, beste sexuaren arabera banantzea eskatu ahal izango du.

Erregistroa aldatzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsona transek beren genero-identitatea aitortzeko eskatu ahal izango diote Administrazioari. Kasu horietan, eskaera baloratuko da, eta ezin izango da sexua egiaztatzeko probarik egin.

Genero-identitatea aitortzeak ez du nortasun juridiko berririk ekarriko, ez barneratze-zentroen barruan, ez kanpoan, eta ez du inolako aldaketarik ekarriko espetxe-sailkapenean.

Administrazioak genero-identitateari egokitutako izena erabiliko du pertsonen arteko harremanetan eta jendaurrean jartzeko dokumentazioa.

Kirola

Lege-proposamenak onartzen du kirolari transek praktika, ekitaldi eta lehiaketetan parte hartu ahal izatea erregistroan jasotako sexuaren arabera, eta ezin izango dela inola ere sexua egiaztatzeko probarik egin. Atzerritarren kasuan ere aitortzen da eskubide hori.

Erregistroko zuzenketaren baldintzak betetzen ez dituzten 16 urtetik beherako transexualek edo trans atzerritarrek praktika, ekitaldi eta lehiaketetan parte hartzeko eskubidea izango dute, beren genero-identitatearen arabera.

Ilido horretan, genero-identitateari dagozkion instalazioak eskuratzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen du.

Erreparazioa

Lege-proposamenak azken kapitulu bat jasotzen du, Estatuko Administrazio Orokorrek errepresio, indarkeria eta babesgabatasun historikoaren ondorioz trans kolektiboari egin beharreko itzulketa, birgaikuntza eta erreparazio sinbolikoa egiteko.

Transexualek iraganean jasan behar izan dituzten hezkuntza-, ekonomia-, jendarte- eta lan-arloko mugak eta diskriminazioak zabaltzeko eta ezagutzeko beharrezko neurriak eta ekintzak hartu beharko dira.

Lege-proposamenean jasotako azken erreparazio-neurriak diru-laguntza bat ezartzen du gutxieneko errenta gainditzen ez duten edo bestelako diru-sarrerarik ez duten 65 urtetik gorako pertsona transentzat.

Ondorioak

Diskriminazio LGTBI+fobikoei buruzko datuen bilketa abian jarri zenetik, Lumagorri ZATEk lehenik eta IKUSGUNEk ondoren, 12 dira jasotako transen aurkako gorabeherak. Kasu gehienak dokumentazioarekin zerikusia duten erakunde-esparruko gatazkei dagozkie. Lan-arloan ere sortzen dira gatazka handiak. Aipatu dugun lege-proposamenak gatazka horiek guztiak arinduko lituzke. Gainera, errekonbertsio-terapien gaia ere landuko luke, kezka handia sortzen dutenak IKUSGUNE, gure hirian iragarri baitira.

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da lege-proposamen honen idazketan parte-hartze handia izan dela: 2014tik aurrera egindako eskaera izan da, pertsona transen kolektiboek eta haien familiek jarrera proaktiboa izan baitute; izan ere, talde horrek jasaten dituen desberdinkerien zati handi bati aurre egiten lagun dezaketen eskaerak legearen testuan sartzea lortu dute. Berdintasun Ministerioaren aurrean egindako 96.000 proposamenek argi erakusten dute nola espero zen eta zer beharrezkoa zen legea. Ez da ahaztu behar ere proposamen horien % 96 legearen aldekoak izan direla, legeak jendartean duen adostasun sozialaren erakusgarri, "zaratak" gorabehera.

Legearen inguruan eztabaida gehien sortu duen aldea da genero-autodeterminazioaren eskubidearen aitormena. Horixe da proposamen horren oinarrietako bat, eta kritikatu egin dute, emakumeak ezabatzen dituelako edo genero-indarkeria baliatzen duten erasotzaileek

erabil dezaketelako genero-indarkeriari buruzko legea aplikatzea eragozteko. Interesgarria da ikustea zenbait herrialdetan eta zenbait autonomia-erkidegotan benetakoak diren esperientziak, ikusteko genero-autodeterminazioaren eskubidea indarrean denetik ez dela inor ezabatu. Argudio hori deuseztatzen nahikoa frogatzen du. Lege honek indarkeria matxistaren biktimei eragiten dien segurtasun juridikorik ezari dagokionez, argitu behar da legeak delitua egiteko unean dauden baldintzen arabera aplikatzen direla, ez gerora. Legeak etengabe aipatzen du erregistroan jasotako sexua, hau da, lege-proposamen honetan ezarritako eskubideak baliatu ahal izateko beharrezkoa da erregistroan aldaketa egitea, hori da baldintza bakarra, baina bete egin beharrezkoa. Askatasunaz gabetuta edo atxilotuta dauden pertsonen kasuan, delitua gertatu den unean erregistratuta zuten sexua hartuko da kontuan, eta legeak barneratze-zentro batean genero-trantsizio bat edo erregistroko zuzenketa bat hasteko eskubidea jasotzen duen arren, aldi berean, oso argi uzten du gertaera horrek ez dakarrela nortasun juridiko berria izatea eta, beraz, ez diola eragiten egoera penalaria.

Argitu dugunez, bada, legeak uneoro jasotzen du arautu behar duen sexua erregistroan jasotako sexua dela, hau da, nahikoa da Erregistro Zibilera jotzea erregistro-aldaketa bat egin nahi duzula jakinarazteko, eta horretarako ez da mediku-txostenik aurkeztu behar, eta ez da egiaztapen-probarik egingo. Baina tramite hori egitea ezinbestekoa da, halaber, legean jasotako gainerako eskubideei heldu ahal izateko. Beste era batera esanda, legeak prozedura erraztuko du, baina ez du deuseztatuko. Neurri hori oso garrantzitsua da, zer nolako gatazkak gainditu behar izaten dituzten pertsona transek egunero.

IKUSGUNEan interes handiz ikusten dugu politika publikoetara bideratutako atala. Garrantzitsua da gogoraraztea eta interpelatzea administrazioek jende transenganako diskriminazioaz arduratu eta kezkatu behar dutela, eta politika horiek ez daudela pertsona transentzako soilik bideratuta; LGBTBI+ politikak jendarte osoari eragiten dioten politikak dira, eta, horrenbestez, jendarte osoaren interesekoak. Interesgarria da pertsona transak jendarteratzeko estatu-estrategia bat sortzea. Estrategia horrek, gainera, etengabeko jarraipena eta ebaluazioa izan behar ditu, haien eraginkortasuna eta betetze-maila aztertzeko. Batzuetan, erakundeek ekimen horiek baliozkoak diren ala ez diagnostikatzeko jarraipenik eta ebaluaziorik ez duten ekimenak sortzen dituzte. Horregatik, interesgarria da proposamen hau ebaluatu eta berri behar izatea. Transexualitatea patologiatik kanpokotzat jotzea oso beharrezkoa da osasun-zerbitzuetan, behin OMEk transexualitatea kendu duenean GNS-11ko patologia gisa. Baina hori bezain garrantzitsua da jendeak nahi duen ibilbidea jarraitzeko duen autonomiaren kontua, betiere osasun-irizpideetan oinarrituta informatuta, eta inoiz ez bere erabakietan esku hartzen saiatuta. Bereziki azpimarragarriak iruditzen zaizkigu pertsona transen osasunaren arloko prestakuntzari eta ikerketari buruzko erreferentziak.

Legeak hezkuntza-arloko neurriak hartzen ditu, ikasle eta irakasleengan pertsona trans-en ikusgarritasuna bultzatuz, hautatutako izenaren arabera tratatuak izateko eta jendaurrean jartzeko dokumentazio guztia zuzentzeko eskubidea aitortuz. Eskubide hori aitortzeak pertsona transexualek titulazio akademikoarekin curriculumarekin dituzten gatazka asko arindutuz.

Legeak sortutako beste gatazka handi bat da, bestalde, enplegu-eskaintza publikoetan trans kupoa eskatzea eta kolektibo horretako jendeak kontratatzeagatik hobariak ematea. Langabezia-tasa hain handia duen, eta, hein handi batean, jendarte-bazterketako egoeran dagoen kolektibo batean, oso egokia da egoera hori arintzeko ekimenak proposatzea,

aukera ematen baitu lan-errealitatea nabarmen aldatzeko, pertsona trans-en kontratazioa errazteko, eta, era berean, genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktimak kontratatzen laguntzeko. Gure ustez, oso neurri egokia da pertsona transen aurkako diskriminazio estrukturala egotea, genero-roletan eta genero-sistema bitarretik kanpo egotearen ondorioz.

Lege-proposamenak eskubideak ematen dizkie trans diren kirolariei, eta aitortzen die kirolean parte har dezaketela, erregistroan jasota duten sexuaren arabera. Neurri horrek, batzuetan, polemika handiak eragin ditu, baina egia da gaur egun ez dagoela arazo handirik gizon trans-ek gizonen kirolean parte hartu ahal izateko; emakume trans-en kasua oso desberdina da. Ez bakarrik emakume trans-ena, baizik eta testosterona gehiago sortzen duten emakumeena, trans izan beharrik gabe, hormonazio bidez murriztera behartzen dira, Batzorde Olinpikoak ezarritako baldintzen arabera. Kirolak kasu horiei buruz egiten duen irakurketa erabat matxista da; hala, interpretatzen du gizon transak ez direla lehiakorrak gizon zisekin, eta, beraz, ez dituztela beren arrakastak borrokatzen; aldiz, emakume trans-ak, cis emakumeentzat badira, jarrera erabat matxista hori trans pertsonen harago doa neurri bera aplikatzen zaienean testosterona gehiago sortzen duten emakume zisei.

Azkenik, Legeak eskatzen dio Estatuko Administrazio Orokorrari erreparazioa eman diezaiola iraganean jasandako errepresio guztiagatik. Gure ustez, botere publikoek talde hori diskriminatu eta jazarri duten heinean, botere publikoei dagokie kolektibo hori aintzatetsi eta erreparatzeko neurriak hartzea, bai eta indarkeria horiek ez errepikatzea bermatzeko ekintzak egitea ere, eta, beraz, lege hau onartzea, berez, neurri etengabea litzateke norabide horretan.

Azken batean, lege-proposamenak polemika handia sortu du, batez ere sare sozialetan, baina azterketa honetan agerian geratu denez, proposamenak ez du elementu estranbotikorik, ez eta inoren diskriminazioa edo ikusezintasuna sustatzen duten ekintzarik ere. Erakunde horiek guztiak ez dira oso susmagarriak antisistema arriskutsu batek diruz lagundutako queer⁰⁶ lobby bat izateaz. Polemika horren jatorria botere-borroka politiko jakin batzuk dira, dibortzioaren legearen onarpenarekin izandako antzeko eztabaida faltsu bat sustatu dutenak. Sortutako polemika botere-borroka jakin batzuetan sortu da, zeinek gezurrezko eztabaida sustatu baitute, dibortzioaren legearekin gertatutakoaren antzera, garai hartan esaten zuten lege horren ondoren, familia-erakundea desagertu egingo zela, eta jendarte desegituratu baterantz abiatuko ginen. Gauzaberagertatu zen abortuaren legearengaraino, zeinaren aurkariak haurtxoen hilketasalatzen baitzuten, eta orain dela gutxiago, ezkontza berdintzailearen legearekin, Gizarte Segurantzarekin amaituko zuena, eta gaur egun arte zenbait hondamen naturalaren erruduna dena, COVID-19a hedatzea ere egotzi zaio, pandemia bihurtzeraino. Horregatik transexualitatearen legearen proposamenak gezurrez beteriko polemika ekarri du, gertatu ohi den bezala jendarte zisheteronormatiboaren statu quo-a zalantzan jarri nahi duten edo eraldatu nahi duten legeekin.

Lege honek lege-esparru egokia eman nahi dio genero-nortasunarekiko errespetuari, osasuna, lan-hezkuntza, kirola edo askatasun-gabetzea bezalako eremuak zeharkatuz; eremu horietan guztietan ZIS araua ezartzen da, pertsona transen kalterako. Azpimarratzekoa da legean jasotako kapitulu bakoitzean ikuspegi interseksionala sartu dela, adingabeen, adinekoen, aniztasun intelektuala duten pertsonen edo atzerritarren eskubideak aitortuz, genero-identitateari dagokionez.

06 <https://es.wikipedia.org/wiki/Queer>

Gasteizko Udalak trans* legearen aurreproiektuaren testuari buruzko eztabaida, azterketa eta jarrera esplizituaren zain, IKUSGUNE trans* pertsonen eskubideak bermatuko dituen araudi bat izatearen alde agertu da, kolektibo horren aurka erabiltzen diren indarkeria askori aurre egiteko, bai eta jendartearen errealitatearekin bat ez datozen prozedura askori aurre egiteko ere. IKUSGUNE, beraz, legea onartzearen alde agertu da, eta erakundeetan ordezkariak duten alderdiei legea indarrean jartzea errazteko eskatu die.



08

gomendioak

01

Pertsona LGTBI+ak pandemian duten egoera aztertzea, zehazki, administrazioek antolatutako neurri sozioekonomikoek biztanleriaren sektore horretan duten eragina. Helburua da egoera eta balizko neurri berriak baloratzeko jarraibide batzuk prestatzea, arauz kanpoko errealitateak bizi dituzten pertsonen gaineko kaltea gutxitzeko.

02

Irmoki babestea pertsona transen eskubideak bermatuko dituen legeria onar dadin, Europako Batzordearen LGTBI Estrategiak xedatutakoaren esparruan.

03

Zurrumurruen aurkako kanpainak egitea, transekiko gorroto-diskurtsoen aurka.

04

Gasteizko IKUSGUNE- LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiaren berri ematea herritarrei, udaleko bitarteko fisiko eta digitalen bidez. Jakin dezaten tresna bat dela udalerrian LGTBI+fobia detektatzeko eta salatzeke.

05

LGTBI+ jendeari eragiten dioten politiketan parte har dezaten bultzatzea, LGTBIQ pertsonen berdintasunerako Europar Batasuneko estrategia betez.

06

LGTBI+ ikuspegia txertatzea politika sozialetan, sexu- eta genero-aniztasunarekin zerikusia duten bazterketa soziala eragiten duten faktoreak identifikatuz.

07

Komunikabideetan jardunbide egokiak bultzatzea, LGTBI+ pertsonen aurkako erasoekin zerikusia duten albisteak idaztean izan ohi diren askotariko diskriminazioak saihesteko.

08

LGTBI+ erreferenteen hedapen-kanpainak egitea.

09

MikroLGTBI+fobiak duen zigorgabetasuna deuseztatzea. Lekurik ez ematea LGTBI+ jendearenganako diskriminazioa eta gorrotoa sustatzen duten diskurtsoak dituzten jendeari, erakundeei edo taldeei.

10

Administrazioaren arreta- eta jarduera-protokolo guztietan LGTBI+ pertsonen arreta sartzeari, askotariko errealitateak kontuan hartuta.

11

Jarraibideak ezartzea pertsona LGTBI+en eskubideak lan-arloan errespetatzen direla bermatzeko, lan-elkarrizketa bat egiten denetik edo langileak hautatzeko prozesu bat egiten denetik lanpostuan egunero-egunero egon arte.

09

bibliografia

- “Perder la propia identidad”. La adolescencia LGTBQA+ frente a la pandemia por COVID-19 y las medidas del estado de alarma en España <https://revistas.ucm.es/index.php/SOCI/article/view/69358/4564456554051>
- Decimoséptima Reunión del Consejo Ministerial 1 y 2 de diciembre de 2009 <https://www.osce.org/files/f/documents/5/2/67626.pdf>
- ¿Prevalece la esperanza o el miedo entre las personas LGBTI de Europa? https://fra.europa.eu/sites/default/files/fra_uploads/pr-2020-lgbti-survey_es.pdf
- Informe de la evolución de los delitos de odio en España <http://www.interior.gob.es/documents/642012/3479677/informe+evolucion+2019/631ce020-f9d0-4feb-901c-c3ee0a777896>
- Desirak plazara. Diagnóstico sobre las realidades de la población LGTBI en Vitoria-Gasteiz https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction_
- Cuídate <https://ikusgune.eus/files/2020/06/folleto-cast.pdf>
- Principios de Yogyakarta http://yogyakartaprinciples.org/wp-content/uploads/2016/08/principles_sp.pdf
- Agenda 2030 <https://www.agenda2030.gob.es/>
- Factsheet on LGBTI issues <https://rm.coe.int/ecri-factsheet-lgbti-issues/1680a1960a>
- LGTBIQ equality strategy 2020-2025 https://ec.europa.eu/info/sites/default/files/lgbtiq_strategy_2020-2025_en.pdf
- Annual review of the human rights situation of lesbian, gay, bisexual, trans, and intersex people in Spain covering the period of January to December 2020 <https://www.ilga-europe.org/sites/default/files/2021/spain.pdf>
- A long way to go for LGBTI equality <https://fra.europa.eu/en/publication/2020/eu-lgbti-survey-results>
- Ley 14/2012 de 28 de junio, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas transexuales. <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/2012/06/28/14/dof/spa/pdf>
- Declaración institucional del ararteko con motivo del día del orgullo LGTBI. 28 de junio de 2020 https://www.ararteko.eus/contenedor.jsp?layout=contenedor.jsp&seccion=s_fnot_d4_v1.jsp&contenido=13493&tipo=8&codMenuSN=18&codMenuPN=1&codResi=1&title=ARARTEKOAREN+ERAKUNDE-ADIERAZPENA+LGTBI+HARROTASUNAREN+EGUNA+DELA+ETA&nivel=1400&codMenu=291&language=es%E2%80%9C
- Resolution 2048 (2015) Discrimination against transgender people in Europe <https://assembly.coe.int/nw/xml/XRef/Xref-XML2HTML-EN.asp?fileid=21736>
- Convenio Europeo de DDHH https://www.echr.coe.int/documents/convention_spa.pdf
- Comunicación de la comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las regiones <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52020DC0698&from=EN>
- Convención sobre los Derechos del Niño. Observación general N° 14 (2013) sobre el derecho del niño a que su interés superior sea una consideración primordial https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/3990_d_CRC.C.GC.14_sp.pdf
- Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor, de modificación parcial del Código Civil y de la Ley de Enjuiciamiento Civil. <https://www.boe.es/buscar/pdf/1996/BOE-A-1996-1069-consolidado.pdf>